

Zarandona: exilioa eta literatura

Zarandona: exile and literature

JOSEBA SARRIONANDIA*

(Idazlea)

LABURPENA. Zarandona exilioari buruzko eleberria da, aita atzerriratuaren kontrako semearen protesta erradikala. Autorea, Josu Landa, gerraostean exiliatutako familian jaio zen, narratzailea bezala. Fikzioa eta bizitako errealitatea, poesia eta filosofia benetakotasunez lotzen dira narrazioan zehar. Liburuaren irakurketa honek narratzailea den semearen ikuspuntua ulertu nahi du, eta aitarena ere bai. Gainera, aita-semeen jokabideak eta usteak exilioa bizitzeko eta pentsatzeko era diferenteen artean kokatu nahi ditu: Ovidio, Plutarko, Aristipo, Edward Said eta beste batzuek giltzak ematen dituzte identitateak eta sentimenduak, politika eta literatura hobeto ulertzeko.

GAKO-HITZAK: Josu Landa; aita; euskaldunak; emigrazioa; Venezuela; arrotasuna.

ABSTRACT. *Zarandona is a novel about exile told from a son's perspective, one that challenges his father in a radical way. The author, Josu Landa, was born in Venezuela in a family of Basque exiles after the Civil War, like the narrator. The novel blends fiction and lived experience, as well as poetry and philosophy. This reading of the book seeks to understand both the son's and the father's perspectives. Furthermore, it aims to explore the attitudes and feelings of both father and son in the context of the diverse ways of experiencing and understanding exile. Ovid, Plutarch, Aristippus, Edward Said, and others allow us to understand much about identities and feelings, politics and literature.*

KEYWORDS: Josu Landa; father; Basque people; migration; Venezuela; alienness.

1. Sarrera

Benetan bizi izandako sufrimendu batek eragiten du, batzuetan, idaztea. *Zarandona* deitzen den nobelan, Josu Landaren kontatzaile trebetasunak bere familiaren exilioaren gaia literatura eder bihurtzea lortzen du. Testigantza pertsonal eta politiko bizi gisa irakur daiteke, baina eleberri bikaina da batez ere. Eleberria, baina saiakeraren argitasun intelektualekin, seme-alaben

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Joseba Sarrionandia. – manuelaire@gmail.com

Nola aipatu / How to cite: Sarrionandia, Joseba (2026). "Zarandona: exilioa eta literatura", *Gogoa*, 26, 43-84. (<https://doi.org/10.1387/gogoa.28386>).

Jasoa: 2026-01-05. Onartua: 2026-03-02. Aurrea online argitaratua: 2026-03-16.

ISSN 1577-9424 - eISSN 2444-3573 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons* Aitortu 4.0 Nazioartekoaren lizentziapean dago

maitasunaren munizioz eta seme-alaben gorrotoaren metrailaz kargatua, eta poesia ukituekin, “denborarekin desagertzen den aitaren dolua”.

Ez dakigu zer jasotzen dugun benetan oinordetzan zerbait jasotzen dugunean. Ez dakigu zertaz ari garen identitateaz hitz egiten dugunean. Eta exilio mota asko daude, jakina. Eleberri honetako aita exiliatua laster joango da, baina bertan geratuko da exilioa. Hau da eztabaidatu nahi dugun gaia.

2. Seme aldendua

Eleberria Imanol deitzen den seme aldenduaren telefono deiarekin hasten da. Kontinente arteko konferentzia laburra, oihuak eta etenak nahasten direla elkarriketan:

Ahotsa ia altxatu gabe hitz egin daiteke kontinente batetik bestera, baina inportantzia gehiago ematen diogu geografiari teknologiari baino.¹

Aitari geografia ardura zaio gehiago, jakina. Semearekiko distantzia. Igande eguerdia da, eta Paulino Zarandonaren 77. urtebetetzea ari dira ospatzen zarandonatarrek Nueva Angosturako etxe handian, Venezuelako lautadetako Guaicaipuroko ordokian. Paulino patriarkaren eta amaren inguruan bildu dira bi seme, errainak eta ilobak. Imanol falta da bakarrik, seme nagusia hiru semeetatik.

Mikel hor dago, urrunetik eta aspalditik heldua beharbada. Aitaren urtebetetzeagatik. Mikelek, distantea eta hurbila aldi berean, aitarekin elkarriketa arraroan murgiltzeko aukera izango du. Aitak bere intimitatera sarbidea emango dio semeari estreinakoz, *Black Label* botila bat ekartzeko eskatu ondoren. Eta whiskiak erraztutako enpatia atseginen, Mikelen galdera eta iruzkin zorrotzen bidez hasiko da familiaren historia larrutzen eta azaltzen.

Mikel kritiko eta galderagilea, aitak ondo ezagutzen du:

Aizu, Mikel, beti bezain argia eta behatzailea...²

Ospakizun igande horretako eguerditik gauerdia arte luzatuko da elkarriketa, aitaren “arima orbainduaren” eta Mikelen aitarekiko “diskordantziaren” kontrapuntua. Modu mingarri eta anbiguoan nahasten eta korapilatuko dira bien oroitzapenak.

¹ Landa, Josu. 2000. *Zarandona*. Tafalla: Txalaparta, 9. Aipuen orrialde-zenbaki guztiak edizio honi dagozkio.

² *Zarandona*, 16.

Zergatik ematen du amore orain Paulinok bere bizitza pribatuaz hitz eginenez? Agian bere urtebetetzea delako, zahartzaroan sartu delako, edo heriotza aurreikusten duelako:

Eta hau adinarekin sortu zaidan arazo bat da beharbada, ze zahartzen zarenean, heriotzaz pentsatu besterik ez duzu egiten. Baina, ondo ikusita, ergelkeria da halako zalantzekin sufritzea. Gertatuko dena gerta dadila. Gutxienez, orain badakit ez naizela hilko neure jaioterrian ez hiltzeagatik.³

Deserriratzea goiz zahartzea da, zalantzarik gabe, baina apur bat harri-garria da aitzak Mikeli esandako hori. Ez dela behintzat jaioterrian ez hiltzeagatik hilko. Mikelek ulertuko du bere aita geografiaz baino gehiago, une horretan, bere familiaz dagoela kezkatuta, egun horretan etxean bilduta daudenez, eta batez ere Imanol seme ernegatu eta ausenteaz.

Aitaren eta Mikelen arteko bat-bateko intimitate edo mamikotasuna, agian, aitaren eta Imanolen telefono-elkarrizketarekin esplikatu daiteke. Dei horren edukia, nobela osoan ostendu ondoren, eleberraren azken orrialdeetan gertatuko da agerian.

Aitzak ez du ja denborari bere bidea egiten uztea besterik. Akabo, bakean hil, eta kito:

Detaila oso simple batengatik konturatzen naiz horretaz. Etorkizunera begiratzen dudanean, ez dut ezer ikusten. Ja ez daukat ezer aurrerantzean. Iraganaren oroitzapenak menperatzen nau beti.⁴

3. Paulino Zarandona

Eleberrian, Paulino Zarandona deitzen den euskaldun baserritarraren ibilbide pertsonal eta politikoa kontatzen da. 15 urterekin endredatu zen 1936ko Espainiako Gerra Zibil basatian, Santoñan egon zen, Asturias aldean, kontzentrazio-esparru batean Frantzian, Katalunian, eta handik ihesean harrrapatu zuten Pirinioetan nazionalak. Lan bortxatueta kondenatuta, bentzaturik eta triste itzuli zen herrira.

Paulino herrira itzuli zenerako, hilda zegoen aita kartzelan, eta kendua zioten familiari etxea. Goseak eta errepresioak zapuzturiko Lekeitio horretan (izengabeko herri hori Lekeitioaren tankerakoa da), familiak baserri hondatu bat alokatuko zuen eta gero GMC kamioi zahar bat erosi konfiskatutako ibilgailuen enkantean. Horixe izango da Paulinoren ogibidea, “gas pobrez”

³ Zarandona, 178.

⁴ Zarandona, 168.

elikatzen zen gas-sorgailu baldarra. Ikatza egin behar zen lehenengo, gasa lortzeko. Bigarren Mundu Gerrako urteak ziren eta, herriko jendeak, adarra jotzeko, *División Azul* deitzen zion kamioi horri.

Txofer eta makinista gisa egindako lan gogorrok nolabaiteko maisutasuna eman zioten Paulinori mekaniko automotriz moduan. Horrek, denborarekin, begiak lurrean bizi ziren baserritarrak baino gehiago izatea ahalbidetu zion. Lurretik begirada altxatu eta, inguruko nekazari eta arrantzale bentzutu eta umiliatuen mundu triste hari so eginez, beste bizitza bat ikusi ahal izan zuen:

Berak gehien desiratzen zuena familia bat osatzea zen, ezer falta izango ez zuen familia, eta lan duina eginez modu duinean bizi ahal izatea, eta lagunekin ondo pasatzea, eta bera zen modukoa izan ahal izatea, inposiziorik eta errepresiorik gabe. Batez ere, nahi zuen, berari sufritzea suertatu zitzaiona bere seme-alabek egundo ez sufritzea.⁵

Paulinok familia bat sortu nahi zuen, eta frankismoak konkistatutako bere herri-kolonia penitentziariotik ihes egitea. Beste era batean esanda: Amerikara joan nahi zuen familia eta guzti. Horrela gehitu zen Paulino, emaztearekin eta gero bere familia osoarekin, desterratuen ilara nonbre zen-batezinekora.

Paulino kamioi zaharrarekin ikasitako abileziekin heldu zen Venezuelara, mekanikari ogibidea hartzeko moduan, bere arbasoen nekazari arima barrutik bota ez arren. Carapa DFn traktoreekin lanean, laster bihurtu zen langile hiritartu eta teknikoki espezializatua.

* * *

Emigrazioa eta desterrua ez dira gauza erabat diferenteak. Euskaldunen desterruak emigrazio antza izaten zuen batzuetan, Euskal Herrian bertan ere euskaldunak menperatuta eta arrotz sentitzen zirelako. Jaioterria uztea, neke edo zigorra izan beharrear, ihesbide eta liberazio zen askorentzat, kanpoan zirelako abantaila ekonomikoak eta askatasun politikoak eta kulturalak. Jakina, nazio berriarekiko harremana anbiguoak izaten zen.

Paulino bere balioak bere semeengan txertatzen saiatu zen. Adibidez, euskaraz hitz egitearen balioa. Ez da ezustekoa, ezta hutsala ere, herriz beste-eratuak bere hizkuntza mantendu nahi izatea, etxean behintzat. Baina zelan erabili hizkuntza zatitu eta hondatu hori Venezuela libre eta elebakar espainiarrean?

⁵ Zarandona, 70.

Kalean jolasten zuten eta telebista ikusten zuten haurrentzat, askatasuna zauritzen zuen inposizioa zen. Ez da ihesbide makala, Euskal Herria garaileen menpe utzi ondorik, non-eta Venezuelako lautadetan ezartzea euskara. Etxe hartakoa, galdetzen du Mikelek, “ez al zen diktadura txiki bat?”.⁶ Agian bai, eta hizkuntza-politika domestikoaren alor horretan, Mikelek “sekula nahikoa laudatu ez den” Lope Agirrerekin lotzen du aita.

Gurasoentzat, exilioan euskaraz egiten jarraitzea leialtasun primario bat izango zen. Are gehiago, Paulinorentzat, euskaraz egitea edonon frankismoaren eta, paradoxikoki, inposizioaren aurkako borroka izango zen.

* * *

Une bat iristen da familia ja Venezuelako barnealdean bizi denean, zein-ean Paulinok bere beste-herri horrekin duen harreman anbiguo nabarmen aldatzen hasten den. Jaioterriarekiko lotura sakona ahultzen dela ematen du, eta Paulinoren bizitza, sustraien galeran errotu beharrean, galera horren ahanzturan oinarritzen hasten dela.

“Sedukzioak” izeneko kapituluan, Paulinok bere sorterri maitea eta bizi den sabana bata bestearen kontraktotzat ikusteari uzten dio, eta bizi den anbiguotasun antzu eta kezagarrian aurkitzen du bere burua:

Sabana ez da basamortua ez oihana. Substantziarik gabeko horizontea besterik ez da sabana, beti beste horizonte batera irekitzen dena. Buztin marroizko larrua, zakarki zurratu eta ondua. Higatutako harriaren antzeko larrua, sutargiaren dentsitate arrarokoa, sugar barneratua, isilpean gordetzen dituen txinparta galdu baten zantzuak, itzulerarik gabeko taupada batzuen irrika. Non eta argi hilgarri bat dagoen etsipenik gabe flotatzen. Gutizia hutsaren antzeko argi bat gorputz guztiak eta itzal guztiak jarraitzen dituen suntsipenera arte...⁷

Josu Landaren testuan, Venezuelako sabanak Euclides da Cunharen, José Eustasio Riveraren edo Alejo Carpentierren mailako deskribaketak merezi ditu. Abagune batzuk ikaragarriak dira. Gerraren espiral izugarriaren eta gerraosteko bentzutuaeren “airerik gabeko airearen” ondoren, Paulinok desterratu-zorabioa jasaten du, eta ospitalera eraman behar dute:

Norbere hauskortasunaren tximista ilunak lehertu zion haragia, odola eta bere izenaren harria ere: gizakiaren txikitasun amilgarria.⁸

⁶ Zarandona, 109, 110.

⁷ Zarandona, 55.

⁸ Zarandona, 55.

Desira idealak errealitate arruntaren aurka. Herri zaharra herri berriaren aurka. Exilioa eta ezereza hazkunde ekonomikoaren eta hobekuntza sozialaren aurka:

Mastrantoa eta alkarabana, kokuioa eta turpiala, palmondo moritxea eta aingira elektroforoa, txaparroa eta dortoka, katxikamoa eta akurea, zamuroa eta kriskitin-sugea, akaina eta komejena, batxakoa eta zigarroia ia erabat sartu ziren Zarandonaren baitan, han txikitatik edukitako landare eta animalien ordeztu.⁹

Paulinok herriaz hitz egiteari utzi ziola sumatu zuten etxeok, hango izateari utzi izan balio bezala, indefinizio etnikoaren aldeko hautua egin balu bezala. Bazirudien bere sustraiak desagertzen ari zirela bere sorbaldan gaitetik, gero eta gutxiago interesatzen zitzaizkiola sorterriko kideak, hementxe izatea aukeratu zuela. Susmatu zuten bertakotzat hartuko zuela laster bere burua, nahiz eta bertakoez egundo ez hartu guztiz bertakotzat.

Kontua da, *Mina Grande Petroleum* konpainiarentzat diesel motorren konponketa tailerrean lanean jardunez gero, "hemengoa" oso unibertsala zela. Modernitate kapitalista zen, jendearen sustraiak erauzten dituen eta komunitateak desagitzen dituen, izaera eta ohitura tradizionalak ordezkatzeko dituen teknologiaren eraginkortasun atzeratzeaz eta kontsumoaren unibertsalitate bazterreaz.

* * *

Celso Emilio Ferreirok, *Longa noite de pedra* idatzi ondoren, 1966an Venezuelara emigratu, eta poema bat idatziko zuen, *Viaxe ao país dos anãos*, hango emigranteen gizatasun eta galegotasun galduaz.

Hona iristean,
Ameriketako mundu desproporzionatu honetara,
altura ertaineko arroteak
balioen eskala galdu zuten,
beren kontzeptu estuak,
beren sinesmen kaxkarrak,
beren babalare ideia sikuak...

Galera ez zen handia —poetaren esanean—, jende xehe horrek ez baitzuen aurretik asko galtzeko. Baina haien sabel hutsak zaborrez bete zitzaizkien, eta zeukaten duintasun apurra saldukerian eta negozio ustelduekin joan zitzairen...

⁹ Zarandona, 59.

Gizontto trauskil horiek
herrikoa zuten apurra
hementxe hil zen
asebetetzen zirelarik
txerrikoa era kriolloan jaten
eta coca-cola edaten...

Errementatu arte betetzen baziren ere zaborrez, espainoltzen eta estandarizatzen baziren are, ez zegoen tristatu beharrik emigrante galegoek duintasuna galtzen zutelako:

Ez dezagun negar egin haien alde,
natura oso jakintsua baita.¹⁰

* * *

Paulino, ingurukoen neurriz gaineko diruzaletasunean eta ustelkerian parte hartu arren, ez zen gauza inguruko kulturen integratu eta bertako sentitzeko. Galdutako sustraiekiko lotura moztu gabe jarraitzen zuen, existitzen ez zen herrialde bat amesten. Lotsa pixka bat sentitzen zuen hasieran nahi zuena ez egiteagatik, baina mundua ez da benetan izan beharko lukeena.

Badira herri bat utzi eta gero beste bat dutela esan dezaketen exiliatuak; hau da, bi aberri dituztela. Paulinok ez zuen esango bere jaioterrian zeukanik aberriarik (hangoa usurpatuta zegoen) eta adopziozko lurraldean ere ez zuen topatuko. Ez han ez hemen. *Mina Grande Petroleum* konpainia hain unibertsalistan lana soldata duinaren truke egin arren, Paulinok bere jatorri urrunekiko lokarri asko zituen, eta sustrai edo hari horiek mugitzen zuten sakonen batetik haren barrua.

Paulinok ezin zituen bere Euskal Herriarekiko lokarriak hautsi, hain zuten ere herri hori existitzen ez zelako. Herri horren izatea (eta izaera ere) bere esku zegoen, beraren eta, noski, besteen eskumenean. Banako irudimenak eta ahalegin kolektiboak eusten zuten Euskal Herri imajinarioa. Horregatik sentitzen da Paulino hain lotua beraren antzeko jende sakabanatuarekin, Jesus Galindez edo Jose Antonio Agirre bezalako erreferentzia abertzaleekin. Horregatik, existitzen ez delako, bere eusko identitatea sugar bat bezala erretzen da bere azalaren azpian, hori gabe beste ezerk ez luke zentzurik izango.

Arrazoi eta kontzientzia horretan bada misterio apur bat, beldur ikaragarrikeria erasotzen baitiote Paulinori lantzean behin. Zortzi urte zituela bere amaren hankari hozka egin zion sugorriaren oroitzapena. Ama ohera botako zuen betiko, eta sugorri horren oroitzapenak Paulinori jarraituko dio

¹⁰ Ferreira, Celso Emilio. 1970. *Viaxe ao país dos ananos*. Bartzelona: El bardo, 71.

atzetik. Paulino Zarandona, ekintzailea, ausarta eta sendoa, 100 kilo esku batekin altxa ditzakeena, oroitzapen batek suntsitzen du. Ez du bere haurtzaroko izua gaindituko bertako indigenen zeremonia batean sendatu arte.

4. Bizitza arrunta epopeia triste legez

Nondik atera du pertsona horrek indarra bizitza osoan zehar tamaina horretako barne-sugarra mantentzeko? Inork ez du erantzungo, inork ez du galdera ulertuko, ezta Paulinok berak ere. Ulertzen dena María Zambranok entzuten zuen aholkua da:

Leku askotatik, leku oso diferentetatik heltzen da ahots bat, tonu desberdinez, hiztunaren sentimenduaren arabera, besterik gabe esaten duena: Zer egiten duzu oraindik hor? Zer egiten ari zara? Itzuli egin behar duzu. Alegia: atera zaitetz hortik, zauden leku ezinezko horretatik, eta itzuli.¹¹

Nik ez dut nora itzuli, erantzungo luke Paulinok. Kontura zaitetz behintzat hemen bizi zarela, eskatuko luke Mikelek, des-exilia zaitetz, denok exiliatzen gaituzulako. Baina desterratu honek bere aberria sentitzen du benetan, hain zuzen ere existitzen ez delako aberri hori, aberri horren existentzia berak eta besteek hura faltan iriztearen arabera delako.

Semeak ez du hori guztiz ulertzen. Aitak bere ariman nonbait eraiki nahi izango lukeen paradisua (Belengo portalen bat bezalakoa) daramala espekulatzen du. Eta imajinatzen du ideal hori gorroto zahar batean oinarritzen dela:

Atzera begiratzen du, errenkorea elikatzeko bakarrik, eta horixe da, bere kasuan, justizia aukera bakarra. Irudimenezkoa, baina justizia da hala ere. Zer demontre, ilusioz ere bizi daiteke. Areago, ilusioz bakarrik bizi daiteke benetan.¹²

Errenkorea, baina justizia. Justizia, baina imajinarioa. Izar bat bezala iluntasun itxian. Izar horri begira egoten zen Ferreiro ere:

Izarraren zain nago oraindik,
eta seme-alabei barkamena eskatzen diet
esperantza luze honengatik,
begietan baitut sute bat bezala...¹³

¹¹ Zambrano, María. 1961. "Carta sobre el exilio". *Cuadernos del Congreso por la Libertad de la Cultura*, 49, Paris, 65-70.

¹² Zarandona, 141.

¹³ *Viaxe ao país dos ananos*. "A estrella", 74.

Ilusioa eta oroimena. Oroimintzat har daitekeen oroimena, barkatu beharrekoa seme-alaben aldetik:

Agure zaharra, ikustekoa da zelan berpizten zaren gauzok gogoratzuz. Ezer ez, agure zaharra, zure benetako aberria oroimina da.¹⁴

Mikelek inoiz aitortzen duenez, Paulino sustrai sakoneko gizona da, estimatzeko moduko kode etikoa dauka, eta bere proiektu pertsonalen eta bere aktibismo politikoaren gainetik zentzu komun hori lehenesten du:

Zeren, sakonean, beti izan da leial bere munduarekiko, bere sustraie-kiko, haurtzaroan eta nerabezaroan ikasi baserri-katolizismoak predikatzen zuen behar-etika eta auzo-lanarekiko, baita gerraren esperientziaren bidez barneratu zitzaion elkartasunaren moral erradikalarekiko ere...¹⁵

* * *

Beste edozeinek leialtasunaren eta desterruaren epopeiaren bat zirriborra zezakeen. Baina exiliatuak ezin du, bera ez da ezeren heroi sentitzen. Ekintza heroikoetan parte hartu balu ere (konpromisoagatik edo kasualitatez), hori iraganean gertatu zen, eta balentria berriak egiten edo asmatzen jarraitu beharko zukeen. Eta ez zuen hori egin: alde egin zuen bakarrik. Bestalde, ze tristea eguneroko bizimoduaren heroismo grisa, ze aspergarria jende arruntaren joan-etorri etengabeen epika motela, intentsitate baxuko ilusio eta desengainu horiekin, hain mugatua den *ni* enpirikoaren kapitulazio eta berriz hasteekin, eta azken hondatzearen perspektibarekin. GMC kamioi zaharra gidatzen jarraitzea bezalakoa da, gas pobrez nekez elikatuta, eta nora zoazen jakin gabe.

Zeregin heroiko esanezin horiei buruz idatzi zuen María Zambranok, exiliotik, *Exilioari buruzko gutuna*:

Batzuek ez dute borroka hura utzi, baina modu anonimoan, eta ekin-tza haiekin identifikatu gabe, haietatik bizi gabe, eta gertatuko da haien ondorengoan historia, hainbeste balentria heroiko egin arren, haiek gabe idatziko dela.

Euskaldun exiliatuak ere ez zuten beren burua deserritu moduan definitzen, ez ziren horretatik bizi. Historia egiten dutenek ez lukete ametituko, eta eurek ere ez lukete onartuko. Paulinok, adibidez, sinetsi ere ez du egingo idazteko gai bihurtuko denik: "Inork ezin du *ni* bezain interesik gabeko norbaiti buruzko libururik idatzi".

¹⁴ Zarandona, 126, 168.

¹⁵ Zarandona, 127.

Kantaririk gabeko ekintza ilunak errefuxiatuenak, eleberrigilerik gabeko bizitza xumeak. Baina halakoxeak izan dira beti baserritarrenak, lurra lantzen bizi, hainbeste istorio gabe, eta beharraren partea balitz bezala hil. Horixe egin dute edozein lekutako desterratu gehienek, urrutira begira hil, abestirik abestu gabe eta, noski, grabatu gabe.

Baina semea derrepentean eleberrigile bihurtzen zaio Paulinori, eta aitarekin kontuak kitatzea erabakitzen du gainera. Aita onberagoa izaten da semea epaitzen semea baino aita epaitzen. Jakina, aita ez du seme-alabak urruntzea nahi izaten. Seme-alabek, oster, aitagandik alde egin behar izaten dute.

* * *

Pier Paolo Pasolinik, Sofoklesen *Edipo errege* zinera eraman zuenean (*Edipo re*, 1967), bertsio hori esplikatzeke orduan azaldu zuen, ze, amarekiko harremanak esparru pribatu batean gertatzen direla, historiatic kanpo bezala, eta modu ideologia aldetik ez-produktiboan. Aitaren eta semearen arteko maitasun-gorrito harremanak, oster, benetako harreman historiko eta esanahi-sortzaileak izaten direla:

Harreman dramatikoak ditut aitarekiko guztiarekin... Adibidez, hala-koa da batez ere nire harremana Estatuarekin; Estatuak aita errepresentatzen du. Horregatik, semea protesta bizi moduko bat da, eta horixe da poesiaren, pentsamenduaren, ideologiaren eta, azken finean, bizitzaren iturria.¹⁶

Aitak Estatua errepresentatzen duela esan daiteke, terminoak trukaturik. Ez da erraz ahazten Mikelen oharra: “Ez al zen etxe hura miniaturazko diktadura bat?”.¹⁷ Eta, hain zuzen ere, aita inposizioaren aurka borrokatzeke egiten dituen ahaleginak, hurrek inposizio gisa hauteman ditzakete, etxeko hizkuntzaren kontuan bezala. Mikelek protesta bizia gorpuzten du, pertsonala, baina batez ere politikoa. Nolabait, “aita hiltzea” da kontua, denborak eraman baino lehen.

5. Semeak

Nondik atera du pertsona batek indarra bere aitaren historia pertsonala eta politikoa zalantzan jartzen duen eleberria idazteko? Kasu honetan, semeen maitasunetik eta, noski, semeen gorrototik. Semeak Imanol, Mikel eta Ander dira.

¹⁶ Mariniello, Silvestra. 1999. *Pier Paolo Pasolini*. Madril: Editorial Cátedra, 289-290.

¹⁷ Zarandona, 109, 110.

Eleberrian ez dira aitaren konfidentziak transkribatzen, dena iragazten da semearen ikuspuntutik. Egia esan, semeak idatzi du dena: ahalegin itzela egin behar du aitaren hitzak erreproduzitzeko, idazteko orduan.

Semearen oroimena da, desterratuaren semeena. Venezuelako ekialdeko lautadetako Zarandona familiaren etxe handian deserrituak biltzen ziren ba-koitzean, semeek erdi aho zabalik erdi ardurarik gabe ikusten zuten euskal-
dun presente eta ausenteen koadro zubiaurretarra. Haria galduta entzuten zi-
tuzten “etxea”, “herria”, “ha dena” gogorarazten zituzten elkarriketak:

Berba lausoak, baina nahikoak jada denbora hutsa baizik ez den lekua izendatzeko: mendi zaharrak, itsasoa, etxea, zerua, aurpegiak, ibaia, ho-
nezkero igual hilda dauden zuhaitzak: itzal baten antzeko zerbait, ariman
bakarrik arnasa hartu, hazi eta bizirik iraun dezakeena: orbainez betetako
eta beti oroiminez lainotutako arima beste mundurik ez duen zerbait.¹⁸

Exilioaren angustia eta itzultzeko ideia, modu batera edo bestera, hiru se-
meei transmititu zieten gurasoek. Etxean, bost ziren:

Exilioak gogortutako bost arima eta desagertzeko arriskuan dagoen
identitate baten angustia.¹⁹

* * *

Paulino Zarandonak eta Zuriñe Aulestiartek nahi zuten hiru semeek
etxea, aberria eta sustraiak izatea. Herrira bidali zituzten, jaioterrira; gura-
soen jaioterrira, eta gurasorik gabe. Herrira itzultzeko familiaren urratsa izan
behar zuen, baina maniobra horrek kontrako emaitza izan zuen. Semeak
amildegi ertzera bidaltzea legez. Sorterrira itzultzeko asmoa, Paulinoren
proiektu pertsonal eta politikoa porrot hutsean amaitu zen.²⁰ Familia zatitu
zitzaion, eta, exilioan bota behar izan zuen aingura. Eta itzuli ezin zuen exi-
liatua kaudillo tropikal modukoa bihurtu zen bere semeentzat.

Paulinok fede onez jokatu zuen, ideal arrazoizko, duin eta miresgarriek
bultzatuta. Baina bizitza konplexua da, nahiak eta balio arrazionalak baino
konplikatuagoa. Eta semeek ez zuten egundo erantzun zentzuzkorik entzun,
aitaren aldetik, Imanolek lotsarik gabe botatzen zizkion galderentzat:

Zergatik hainbeste banantze? Zergatik hainbeste gabetasun? Zergatik
hainbeste errepresio? Zergatik hainbeste sakrifizio?²¹

¹⁸ Zarandona, 9.

¹⁹ Zarandona, 23.

²⁰ Zarandona, 47.

²¹ Zarandona, 47.

Imanolen aitarekiko matxinada eta lotsagabekeria egoeraren (Estatuaren) aurkakoa zen: guraso madarikatuak; familia madarikatua; exilio madarikatua; aberri madarikatua; nazionalismo madarikatua; errepresio madarikatua; politika madarikatua; zibilizazio madarikatua; maitasunaren gezur madarikatua; mundu madarikatu honetako guzti madarikatua.

Aitak bere burua defendatzen du esanez ahal zuena egin zuela ezer falta ez zuen familia hazteko, guztiak duintasunez bizitzeko moduko etxea eraikitzeko:

Ezin da dena nahi izan. Zu eta zure anaiak ezin zineten Euskal Herrian ikasten egon eta, aldi berean, hemen bizi. Sakrifizioak egin behar izan genituen. Nolanahi ere, hau izan da eta da zure etxea, eta Imanolen etxea, eta Anderrena. Ez dut zalantzarik.²²

6. Etxea

Paulino lehenengoetakoa izan zen etxea eraikitzen Nueva Angosturako eremu horretan. Hasieran, sastraka-lur antzua baizik ez zen, sasitza eta palmondo motza, kriskitin-suge eta termitategi. Ez zegoen ez argindarrik, ez ur korronterik, ez drainatzerik. Paulinok ez zuen *El Dorado N 1* eremuko terrenorik ordaintzeko beste diru, hagatik eraiki behar izan zuen mortu horretan. Materialak eta beharginak ozta-ozta ordaindu eta, eraikita gero bai, mortu horrek izen ponposoa hartuko zuen: *Sabana Hermosa*.

Mortua urbanizatu eta etxe ederra eraiki zuen. Bizileku atsegina ere bazen, baina semeei ez zitzaien gustatu Paulinok aukeratutako arkitektura diseinua. Kinta moderno dotoreak zeuden Guaicaipuroko ordoki hartan, baharekezkotxolekin (kainabera bilbaturik egindakoeekin) kontraste nabarmenean. Etxearen diseinua konbentzionalagoa eta funtzionalagoa izan zitekeen, baserri euskaldunen itxura imitatu beharrik gabe. Eskerrak Zuriñek ez ziola etxearen aurrean zintzilikatzen utzi “Etxeandia” kartela.

Idealak aipatuz defendatzen du Paulinok bere burua. Bere militantzia politikoari baino gehiago, bere sustraiei eta oinarritzko etikari dagozkion idealak. Bere idealen arabera eraiki eta atondu du familiaren etxea. Arrazoi horrekin egiten dio Mikeli aurre:

Inork ez daki etxe hori nik neure idealek agintzen zidatelako eraiki nuela horrela. Bai, idealek. Hitz horrek esaten dizu zerbait? Orain inork ez du idealez hitz egiten, baina garai hartan arnasten genuen airea baino garrantzitsuagoak ziren, idealak. Ni ez nintzen Ameriketara etorri sinesten nituen gauzei traizioa egitera. Batez ere, Euskal Herrian bertan, geneukan

²² Zarandona, 92.

guztia desagertzeaz zegoenean, frankismoagatik eta, hain zuzen ere, idealei batere baliorik ematen ez zieten euskaldunengatik. Ulertzen duzu?²³

Izan ere, etxea eraikitzea ez zen familiaburuaren betebeharra bakarrik. Baserritar izateari egundo utzi ez zion Paulinorentzat, proiektu etikoa eta politikoa zen etxe baserria bezain trinko eta iraunkor hura:

Bere irudimenean asmatzen eta bere borondatean laztantzen denbora luzez edukitako utopietako bat izan zen hura. Bere utopiarik printzipalena, zalantzarik gabe, Espainiatik eta Frantziatik independentea litzatekeen Euskal Herri demokratikora itzultzea zen, estilo berriko indiano gisa. Ez garai bateko indiano haiek bezala, berrogei urte kanpoan eman ondoren agertzen zirenak herrian berriro, inolako kezka politikorik gabe, aldian aldiko nagusi zen kontserbadurismoaren alde, eta urrezko txanponak banatzen herrian benefaktore moduan...²⁴

Paulino Zarandonak ez zuen jaioterrian harrizko jauregia eraikitzen duen indiano mota horretakoa izan nahi, zuhaitz exotiko bat etxaurrean. “Indianoren” figura mespretxatzen zuen, aberats itzultzeko eta gainerako herritarren aurrean boterea eta ospea lortzeko helburuarekin emigratzen duena. Ez zuen itzuli nahi bere herriaren konkistatzaileei men egitera. Itzuli nahi zuen, frankismoaren azpitik alde egin eta bere bizitza askatasuna arnasa hartuz egin duen norbait legez, sorterrian ere aske bizitzen jarraitzeko. Franco hil ondoren, independentziarako bidean legokeen Euskal Herrira itzuli nahi zuen.

Eta bere adopzio nazioari, berari ongietorria eman eta lana eman zion lurrrari, bere eskuekin eta baliabideekin eraikitako etxe bat utzi nahi zion. Etxe sendo eta duina, bere jaioterriko baserriak bezalakoa, Venezuelako lautadetan iraungo zuena.

* * *

Jakina, Nueva Angosturako etxea ez zen baserria, ezin izango zen inoiz izan baserria. Eta noski, Francisco Francok ez zuen boterea utziko Paulinori komeni zitzaion momentuan eta eran. Paulinok ezin izan zuen itzuli nahi zuen bezala, independentziarako bidean legokeen Euskal Herrira. Euskal Herria beti bezala egongo zen, aurrerantzean ere, lotuta; Francok estu lotuta edo bestelako gobernuek ere oso estu lotuta. Paulinoren ideal guztiak utopia pertsonal arraro bat baizik ez ziren haren semeentzat:

Utopia nazional bat, urrunegia osasuntsua izateko Guaicaipuroko lautada hauetan.²⁵

²³ Zarandona, 100.

²⁴ Zarandona, 94.

²⁵ Zarandona, 104.

Eta gainera, derrepentean, Imanol etxetik, familiatik, denetik urrundu zen. Horrela hautsi zen Paulinoren gidoi pertsonala eta politikoa. Mikelek ez zuen etxea utzi, baina familiaren historia konplexu eta eztabaidagarria hausnartzen eta aztertzen geratu zen:

Etxe hura izan zen, etxe guztiak diren bezala, familia orok dituen on eta txar guztiak ernetzeko, garatzeko, loratzeko eta fruituak emateko kobazuloa, hazi-ohea, habia, kaiola eta ziega.²⁶

Bazuen egoitza hark paradisu antz apur bat, baina baita Paulinok aitortu zezakeena baino infernu gehiago ere. Lorpen pertsonala izan zen, baina baita bere neurrira egokitutako purgatorio familiarra ere. Mikel minduaren oroitzapen birpentsatuek talka egiten dute aitaren kontakizun autobiografikoarekin:

Munduari eman diozun etxe bakarra, etxe hau, leku ona izan zitekeen gauza ederretarako, baina zure bizitzako eta zure familia osatzen dugun batzuen bizitzako pasarte txarrenak egosi diren labea izan da. Ez dakit nola izan zaitezkeen hain miopea. Ez dakit nola dituzun begiak gauza batzuetarako bakarrik, inoiz ez garrantzitsuenetarako.²⁷

Nueva Angosturako etxearen hormen artean eman zuen amore Paulino funtsean baserritarrak, bere herriaren aldeko borrokalari eskuzabalak, eta nagusitu zen Paulino enplegatu abil, berekoi, kalkulatzaila. Etxe hartan bizi zela bihurtu zen nagusi amerikanoen enplegatua, behargin eta atseginak zirela uste zuen, askoz geroago konturatu zen esplotatzaileak zirela.

Behin, emaztea jo ere egin zuen, Zuriñek errieta egin zionean dirua tabernetan eta putetxeetan xahutzeagatik. Hiru semeen sei begi harritu eta izutuen aurrean gertatu zen.

7. Exilioa galera lez: Ovidio Erromakoa

Paulino eta bere familia osoa desterratuen ilara mugagabe eta amaituezinekoak dira, baina desterrua inguruabar historikoak eta pertsonalak kontuan hartuta azaldu behar da. Paulinoren eta bere familiaren herribesteratzea ez da Ovidiorenaren antzekoa.

Exilio mota jakin baten arketipoa da Publio Ovidiorenaren. Lurjabe aberats baten semea, Ovidio Erroman famatu zen poeta moduan. *Amodioaren Arte* (*Ars Amatoria*) idatzi zuen, sedukzio-trikimailu eta joko erotikoez, besteak beste. Gure aroko 8. urtearen amaieran, *Metamorfosiak* (*Metamorphoseis*) gre-

²⁶ Zarandona, 93.

²⁷ Zarandona, 101.

ziar eta erromatar mitoen berridazketa itzela amaitu zuenean, derrepentean, dena okertu zitzaion Ovidiori, Augusto enperadoreak Erromatik kanporatzeko agindu zuen. Ez zuen desterratu, baizik deportatu: derrigorrezko egoitza ezarri zion bizitzeko, Erromatik ahalik eta urrunen, Erromako hiritar gisa zuen eskubiderik kendu gabe. Hala heldu zen Ovidio aberats eta estimatua, 50 urte baino gehiago zituela, deportatua, Tomosera, Pontus Euxinus edo Itsaso Beltzeko Danubio ibaiaren bokaleko herrixka txiki urrunera.

Erromako hiritik eta kultura latinotik (kultura izena merezi zuen bakarra, bere ustez) kanporatuta, deserrian, Ovidiok bertso tristeak baino ezin izan zituen idatzi ordutik aurrera. *Tristia* liburuan, enperadorearen errukia eskatu zuen, baina alferrik. *Epistulae ex Ponto* izeneko gutundegian bildu ziren lagunei eta emazteari egin zizkien deialdi etsituak, Augustoren aurrean bitartekari lana egiteko erreguak. Ikaragarria da Ovidioren poemetan adierazten den desolazioa. Ulisesek baino gehiago sufritu duela dio *Tristiako* hirugarren liburuan:

Hainbeste zoritxar jasan ditut lehorrean, eta hainbeste itsasoan,
ze entzutez bakarrik zeuk ere sufrituko zenituzkeela.

Sinetsi, mesedez: Ulises nirekin, konparatzen baduzu
konturatuko zara Neptuno Jupiter baino bigunagoa izan zela...²⁸

Ovidiorentzat ez dago Erromatik aparte bizitzea merezi duen mundurik. Deserrian, ez dago Erromara itzultzeaz beste salbaziorik.

Ulisesek irudikatzen du exilioaren kontzepzio honen prototipo mitikoa. Baina, Ovidio ez da inolako heroia errealitatean, baizik eta barkamena eskatzeko eginkizun triste eta penagarria besterik ez duen kondenatua.

Hurrengo elegian, hamabigarrenean, udaberria heldu da Itsaso Beltzaren ertzerara ere. Han ere hotza baretu eta liliak kolore biziz loratzen baitira larreetan, baina poetak Erromako eta Inperioko udaberriko ospakizunak baizik ez ditu gogoan. Ovidiori berdin zaio eguraldia: Tomos aldeko hotzak eta izotzak Erroma-gabeziaren metafora dira. Ovidiok jasaten duen oroimin hotzaldia ez baita meteorologikoa, baizik kulturala eta politikoa.

Exiliatuak difamazioak eta urruntasunak, ahanzturak eta aitortzak ere aguantatzeko gauza izan behar du. Exilioan galera eta ondoeza besterik ikusten ez duena, ez da itzuliko Ulisesen moduan, bere memoriaren tunelean hingatuko da noraezean.

Amore emate horrek, errendizio hori idazteak ere, ez zion Ovidiori lagundu Erromara itzultzen. Ez zuen barkamenik lortu Augustogandik, ezta bere ondorengo Tiberiogandik ere. 17. urte inguruan hil zen, bere mundutik, bere kontestutik, modu tragikoan urrunduta. Ovidioren testuak bai, ordea,

²⁸ Ovidio. ≈ 9. *Tristia*. Hirugarren liburuko hamaikagarren eresian.

Erromara iritsi ziren, eta handik gero edonora. Oraindik ere irakurgai dira Mendebaldeko literatura-kanonean, exilioaren kontsolamendurako, eta autoren heriotzaren ondorengo artearen jarraitasunaren froga gisa.

* * *

Exilioaren paradigma bera errepikatzen da, Erromako *Imperium mundi* horretan bezala, Txinako “munduko inperioan”. Han, dinastia baten edo hurrengoaren esku daude boterea eta zibilizazioa. Inperioaren mugetatik haratago, ez dago basakeria eta ezerez kulturala baino. Txinako poeta klasiko ia guztiek, horietako asko pertsonalki bizi izan baitziren desterraturik edo deportaturik, exilioari buruzko kontzeptu hori erakusten dute.

Du Fu (712-770), adibidez, Tang dinastiako poeta handia, hegoaldeko lurralde sargorietan ibili zen herriz besteraturik. Iparraldera begira bizi zen beti, esanez sentimenduak dituen gizon batek burua makurtu eta negar baino ezin duela egin halako egoeran. “Ibaiertzeko ikuspegia” deitzen da, baina “Desterratuaren gogoeta” dei zitekeen Du Furen ondoko testu hau:

Begiak altxatzen ditut eta usoak eta zikoinak
ikusten ditut zeruan Iparralderantz hegan.

Aberastasunak, kargu politikoak, lanpostuak:
halako gauzek ez dute niretzat esanahirik.

Atzerrian, udazkena, negua, udaberria...
gero eta axolagabeagoa bihurtzen naiz.

Giza jendeak hala tratatzen du beti batak bestea:
ez didate Sartaldeko Lakua bisitatzen utzi.

Hemen, behintzat, ezin didate debekatu
hango mendiei eta ibaiei buruz idaztea.²⁹

Atzerriko lasaitasunak ezin ditu deserrituaren frustrazioa eta irrikak baretu. Udazkena eta negua, udaberria edo uda, inguruan erakusten zaizkion opari ederrak ere, desterratu gizajoarentzat, naturaren sentiberatasun-ezaren seinale baino ez dira.

Bazeuden, hala ere, desterrura apropos joaten zirenak. Inoren menpean bizi baino nahiago zutenak herriz besteratu, Paulino bezala. Baina, poeta txino batzuek Paulinok baino modu filosofikoagoan bilatzen zuten jakituria eta askatasuna.

²⁹ Owen, Stephen. 1996. *An Anthology of Chinese Literature: Beginnings to 1911*. New York: W.W. Norton & Company, 420.

Hala bizi izan zen, Txina inperialean, Du Furen lagun bat, beste poeta handi bat: Li Po. Poeta desterratua. Du Fuk “deserritu hilezin” edo “betiereko exiliatu” deitzen zion Li Pori, maisutasuna aitortuz, errimagingintzan baina batez ere jokamoldean, askatasuna aukeratzeagatik, haren kontzientzia ez zegoelako haize soziopolitikoen arabera makurtzeko prest.

* * *

Ovidiorenak edo Du Furenak bezalako exiliatuen poemak erraz aurki daitezke hizkuntza nagusi inperial guztietan.

Frantsesez, adibidez, XVI. mendean aurkitzen dugu Joachim de Bellayren *Heureux qui, comme Ulysse...* ezaguna, Ovidioren oinordekotzat hartzen duen frantziar gaztea, baina bere herri txiki frantsesa Erroma baino hobe delako argudiatzeko. Nemesio Etxanizek “Etxe-min” titulua eman zion:

Zorionekoa Ulisesena moduko bidaia ederra egiten duena,
edo urrezko ahari-larrua lortu zuen argonautarena bezalakoa.
Eta itzuli ondoren, eskarmentuarekin eta jakituriar baterik,
ahaideen artean bizi dena harrezkero...

Noiz ikusiko ote dut nik neure herritxo maitea,
tximiniatik kea dariola. Ze sasoitan ikusiko ditut
berriro neure etxetxoaren harresiak,
neure barruko probintzia aparteko hori...

Laketago zait nire aitaita-amamek eraikitako etxea
ataurre dotoredun Erromako jauregiak baino.
Gehiago gustatzen zait muino-gainetik gure etxea ikustea,
marmol trinkoa baino maiteago dut harbel fina.

Nahiago dut Loire galiarra Tiber latinoak baino.
Nahiago dut nire auzoa, Liré, Mendi Palatinoa baino.
Nahiago dut, itsasoko airea baino, Anjouko epeltasuna.³⁰

Argi dago Joachim de Bellay aristokrazia errurala mistifikatzen ari zela. Anjouko herri txikia aipatuz Frantzia handi osoa idealizatzen zuela. Frantziako Pizkundeko patrizio horrek jada argitaratua zuen *Hizkuntza frantsesaren defentsa eta ilustrazioa* (*Défense et illustration de la langue française*, 1549) eta, 30 urte zituela (1553an), senide kardinal boteretsu baten idazkari moduan joan zen Erromara, bere karrera politiko-kulturalean goi-mailara bideratzeko. Joachim du Bellayk ez zuen exiliatu (hitzaren zentzu zehatzean) beharrik izan exilioari buruzko poema bikaina idazteko.

³⁰ Bellay, Joachim de. 1558. “Sonnet XXXI”. *Les Regrets*.

XXXI. soneto horretan, exilioaren gaia topiko literario (*locus amoenus*) bihurtzen da. Ez benetako eta askotan zoritxarreko exilio bizipenaren azalpena egiteko, baizik eta literaturak jauntxo edo burges letratuei oparitutako errekurso edo maina moduan, gizartean dauzkaten komoditateak eta pribilegioak luzitzeko, era dotorean eta ez itxurakeriarik gabe.

* * *

“Exilioa eta literatura” azpigenerotzat har daiteke, “boterea eta literatura” gaiaren generoaren barruan. William Shakespearek adibide onak ditu halako kontuetan. Esperientzia pertsonala ere izango zuen, bere ahalegina egin baitzuen Ingalaterrako nazio-estatua eraikitzeke, Oliver Cromwellek eta Britainiar Inperioak baino lehenago gainera.

Exilio literario adibide bat *Ekaitza* obran dago. Prospero, Milango dukea, bere anaia Antoniok boterea kendu eta uharte urrun batera helduko da bere alaba Mirandarekin. Desterrualdi kolonial hori kontatzen da obran zehar. Azkenean berradiskidetu egingo dira Prospero, Antonio eta Alonso, hauek Prosperori itzuliko baitiote dukerria. Hauxe da obraren klimax moral, Prosperoren barkamena, hamabi urteko desterruko barru-ernegua gainetik kenduta. Kontrarioak menpean dituen arren, Prosperok barkamena aukeratzen du:

Haien injustizia larriek
min handia egin didaten arren,
nire amorruaren aurka, arrazoi nobleagoa aukeratzen dut.
Bertutea arraroagoa da
mendekua baino.³¹

Kalkulu gutxiagokoa izaten da mendekua, zalantzarik gabe, berriro adiskidetzeari baino. Prosperoren alaba Miranda, norekin-eta, Alonsoren seme Fernando-rekin ezkonduko da, eta bien arteko lotura Milan eta Napoli arteko adiskidetasunaren eta etorkizun baketsuaren itxaropena eta sinboloa izango da. Prosperoren eta Mirandaren exilioa parentesi modukoa izan da, desterru eta desdenbora aldia, baina pertsona boteretsuak dira, irlaren eta hainbat hiriren jaun eta jabe.

Konpara daiteke Prosperoren autokonplazentzia bertutetsua Mikelek bere aitaren iraganeko errenkoreei buruz egiten duen espekulazioarekin. Uste du aitek antzinako irainak dituela barruan gordeta, barkatu beharko lituzkeela. Prosperok egiten duen bezala.

Baina barkatzeko, indultuak emateko, edo amnistia dekretatzeko, boterea izan behar da. Augustok edo Tiberiok zuten moduko boterea, edo Txinako en-

³¹ Shakespeare, William. 1623. *The Tempest*.

peradoreak. Pleiadeetako kidea edo Milango dukea izan behar da inor barkatzen hasteko. Paulinok ez du, gizajoak, inor barkatzeko botererik, ezta zer barkatu ere.

Ez du mendekurik antolatzeko baliabiderik ere, ezta bere burua non lurperatu ere. Exiliatua da bizi den lekuan, eta are arrotzagoa da ja bere sorterrian.

8. Exilioa kosmopolitismo lez: Plutarko Keroneakoa

Ez ditugu exilioari buruzko erreferentzia greko-erromatarrek pentsatu gabe aukeratu. Greziar kulturatik jaso ditugu gure bizimodu publikoaren oinarri bihurtu diren hitz asko: *polis*, *demos*, *logos* eta abar. Herritarraren, gizartearen eta estatuaren arteko tentsioen oihartzunak dira, eta susmatzekoa da kontzeptu horiek zerikusia dutela gure demokraziaren ideiarekin eta egungo harreman politikoekin.

Exilioari dagokionez, gai garrantzitsua izan zen bai greziarren literaturan; erromatarrenean ere bai. Exiliatuak eurek idatzitako testuak izan ziren, desterratuentzat idatzitako testuak ere bai. *Consolatio* izeneko generoaren parte ziren, pertsona maitaturen bat galtzeagatik edo deserriratzeagatik doluan zeudenak kontsolatzeko idatziak.

Erromatarren nagusitasunaren garaian, gure aroko 96. urte inguruan, greziar batek, Plutarko Keroneakoak, gutun bat idatzi zion exiliatutako lagun bati: *Exilioari buruz*. Plutarko ez zen pentsalari bereziki originala, ezta filosofoa ere zentzu zehatzean, baizik eta moralista eklektiko ondo prestatua, antzinako pentsamendu ziniko eta estoikoak bildu eta modu errazean azaltzen ahalegintzen zena, kasu honetan bezala.

Ovidiorenak “exiliatuaren testuak” ziren, desterratuaren tristura azaltzen. Plutarkok “exiliatuarentzako testuak” idatzi zituen, trauma horri aurre egiteko, mina arindu eta beste kulturaren integratzea proposatuz. Plutarkok munduaren ikusmolde kosmopolita bat azaltzen zion, gizakiak berez mundu osoko hiritarrak direla, eta unibertso osoa dela etxea bezalakoa. Eta, gainera, arimaren aberria ez dela Lurra, zerua baizik, eta norberaren bertutean eta jakiturian oinarritzen dela zoriona.

Sokratesi egozten zion ideia kosmopolita hori Plutarkok, Sokrates oso atenastarra zen arren:

Baina Sokratesek hobeto hitz egin zuen esan zuenean bera ez zela atenastarra ez heleniarra, baizik kosmopolita. Kosmopolita esan zuen, beste batek rodastarra dela edo korintoarra dela esango lukeen moduan, bera ez baitzen geratuko ez Sunion, ez Tenaron, ezta Keraunio mendietan ere. Ikusten duzu hor goian Lurra inguratzen eta besarkada hezez sostengatzen duen eter infinitu hori? Ba, eter hori da gure aberriaren muga, eta inor ez da desterratua, ez arrotza, ez kanpotarra muga horren barruan, eta antzekoak dira denontzat sua, ura eta airea, eta berberak dira gure maisuak,

gure kudeatzaileak eta aholkulariak: eguzkia, ilargia eta goizeko izarra. Legeak berdinak dira guztientzat, agindu eta autoritate bakarraren pean...³²

Jainkoa da autoritate bakarra, gauza guztien hasiera, erdigunea eta amaiera. Horixe da Unibertsoaren errege absolutua. Justizia dator ondoren, legea hausten dutenen mendekatzailea, hiritar gisa gizakiek erabiltzen dutena beste gizakiekiko.

Testua testuinguruan jartzeko, Jainkoari dagokionez, kontuan izan behar da Keroneako Plutarko (*Lucius Mestrius Plutarchus*, erromatar hiritartasuna jaso ondoren) Apoloren sazerdote nagusia zela Delfosko Orakuluan; hau da, pitonisen augurioak interpretatzeko pribilegio berezia zeukala. Justiziari dagokionez (letra larri idatzi beharrekoa da Justizia ere), gogoratzekoa da Plutarkoren bizitza osoan zehar (Klaudio, Neron, Galba, Oton, Vitelio, Vespasiano, Tito, Domiziano, Nerva, Trajano eta Hadrianoren agintepean) Erromatar Inperioaren menpean zegoela dena:

Gu, inurritegi edo erlauntza batetik ateratzen diren inurriak edo erleak bezala, kezkatzen gara eta atzeritar sentitzen gara leku batzuetan, unibertsoa geurea dela konturatu gabe, jakin gabe eta ikasi gabe. Baina, geurea da benetan. Barregarria egiten zaigu baten batek Atenasen ilargia Korintokoa baino ederragoa dela edo halako sinplekeriak esatea, baina hala ere geu ere antzera ibiltzen gara atzerrian, lurrarekiko, itsasoarekiko, airearekiko, zeruarekiko zalantzekin, geure herrikoiez bestelakoak eta oso diferenteak balira bezala. Egia esan, naturak libre eta geure buruaren jabe uzten gaitu, baina geuk lotzen dugu, estutzen dugu eta giltzapetzen dugu geure burua, horma artean, txiki eta mizkin bihurtuz.³³

Exilioari buruz horretan, Plutarkok ez zuen deserriratuaren antsietatea arintzeko aholkuak ematen zituen, *consolatio* estoikoetan egiten zen bezala, eta, gainera, herritartasun kosmopolita unibertsalaren teoria azaldu zuen modu labur baina argian. Hala baina, zer ari zen benetan esaten? Naturak gizakiak aske eta libre uzten dituela bakoitzak nahi duena izateko eta egiteko? Ala ia kontrakoa ari zen esaten, alegia, Jainkoaren eta Inperioaren menpeko izateko aukera eskuzabala ematen zaiela gizakiei, eta beste edozein aukera txikia eta mizkina litzatekeela?

Heleniarrak aipatzen zituen Plutarkok, era batean edo bestean: “Heleniarraren edozein gotorleku da nire aberria”. Badira beste leku batzuk, beste aberri batzuk, eta geureak dira haiez jabetuz gero. Askatasunaz ari da Inperio sasoian, eta kezkarria da. Konkista askatasunaz ari dela ematen du batzuetan.

* * *

³² García-Bilbao, Pedro A. 2002. “Migraciones forzosas en el mundo clásico: Plutarco y la construcción social de la identidad”. *Barataria*, 14, 157-170.

³³ *Idem*.

Dante Alighieriren exilioa guztiz politikoa izan zen. Ez zen ezer idatzi izanagatik gertatu, Ovidioren deportazioa bezala, eta ez zuen hiri-besteratze hori agonia gisa bizi izan, erromatar poetaren moduan. Florentzian desterratu zuten 1302an, baina bere proiektu politikoaren alde jarraitu zuen borrokan Dantek (Guelfo zurien alderdikoa zen bera) beste florentziar exiliatu sakabanatu batzuekin elkaturik. Eta bere exilioaz harro sentitu zen beti.

Interesgarria da Dantek (hain leiala bere kausa politiko lokalarekiko) Plutarkoren kosmopolitismo hiperbolikoaren ideia baliatzen zuela *De vulgari eloquentia* liburuan, bereziki hizkuntzarekin lotuta:

Hizkera asko eta diferenteren bidez garatzen da giza jarduera eta, ondorioz, jende askok ez du elkar ulertzen hitzik erabiliko ez balute baino hobeto: beraz, egokia da amarik ez zuen, titia edoski ez zuen, haurtzarorik eta nerabezarorik izan ez zuen gizonak erabili zuela uste den hizkuntza bilatzea.

Honetan, beste hainbat gaitan bezala, hiri handi bihurtzen da Pietramala, Adamen seme-alaba gehienen aberria. Bere jaioterrria eguzkipeko herririk atseginena dela uste dute batzuek, baina arrazoibide hain okerra hartzen duenak bere ama-hizkuntza ere lekuan lekuko beste hizkuntzak baino hobetzat baloratuko du, eta, ondorioz, Adamek erabili zuen bera dela uste izango du.

Guk, oster, mundua hartzen dugu aberritzat, arrainek itsasoa hartzen duten bezala, Arnoko urak edan genituen arren haginak izan orduko, eta Florentzia maite dugun arren hainbeste ze exilio bidegabea jasaten baitugu maitasun horrengatik. Hala ere, arrazoiaren bizkarrean ipintzen dugu, ez sentimenduen gainean, gure iritzien pisua.

Eta egia da ez dagoela lurrean Florentzia baino leku atseginagorik gure gozamenerako eta gure zentzumenen lasaitasunerako. Baina mundua osotasunean eta partetik parte deskribatzen duten poeten eta beste idazle batzuen lanak kontsultatu ditugu, munduko bazter askori eta hango ohitura desberdinei buruz hausnartu dugu, bi poloak eta ekuatorea ere kontuan hartuz, eta horrela konprenitu dugu eta benetan sinesten dugu hiri asko daudela Florentzia eta Toscana baino nobleagoak eta atseginagoak, ni han jaio nintzen arren eta hango hiritarra naizen arren, eta herri eta nazio askok hitz egiten dituztela italiarrena baino hizkuntza ederragoak eta erabilgarriagoak.³⁴

* * *

Exilioa ez da beti zigor politikoa eta zoritxar pertsonala. Exiliatuari munduaren konplexutasuna ateratzen zaio bidera. Inoiz, Venezuelako lautadetan, mundu zabal eta arraro hori jausi zitzaion Paulinori gainera:

³⁴ Alighieri, Dante. ≈ 1305. *De vulgari eloquentia*.

Guaicaipuroko lautadek sorterriko mendiek baino gehiago pisatzen dute orain bere ariman.³⁵

Bere aitak irudimen plutarkistaz funtzionatu beharko lukeela uste du Mikelek, hangoa eta hemengoa sentituz. Zizili amonaren espiritua mundu osoan barreiatuta dago, Guaicaipuroko hareatzetan ere bai.

Hori dio Mikelek. Ez du ematen hain plutarkista denik Paulino. Hala ere, kontuak kitatzeko orduan, semeak gurasoei espres eskertzen dien ondare bakarrenetakoa da. Sorterri urrunari hain lotutako gurasoengandik nolabaiteko plutarkismo hori heredatu zutela:

Egia da, azkenean, gure izaerak forjatu zituztela. Egia da kosmopolitismoa txertatu zigutela, mundua eta unibertsoa aberritzat hartzen dutenen bizkortasun espirituala. Egia da, baita ere, indartsu egin gintuztela.³⁶

9. Exilioa desanparo lez: Aristipo Zirenekoa

Diogenes Laerziok bere *Filosofo argien bizitzak* liburuan aipatzen du Aristipo, esanez hitzaldi bat idatzi zuela: *Exiliatuei*. Aristiporen aurreko hitzaldiak ere halakoa du titulua: *Naufragoei*. Gure aroa baino lehenagoko 435-355 urteetan biziko zen. Claudio Guillének *Desterratuen eguzkia* liburuan,³⁷ antzinako greziar zinikoen eta estoikoen exilioari buruzko testuak konparatzean, Aristiporen jarrera nabarmentzen du, bai Ovidioren eta bai Plutarkoren ikusmoldeetik apartatzen delako.

Aristipo Sokratesen jarraitzailea zen, baina sokratismo desberdinak zeuden. Plutarko ere sokratista zela ikusi dugu. Baina Sokrates oso atenastarra zen. Sokratesek eta gero Platonek hiria edo gizartea antolatzeke eztabaidan parte hartzen zuten, politika eta legeak interesatzen zitzaizkien. Ez alderdi demokratik ez alderdi oligarkikoak ez zuten Sokrates maite, zorrotzegia eta lotsagabeegia zelako-edo. Azkenean, heriotzera kondenatu zuten.

Hala ere, Sokratesek sinesten zuen instituzioetan: legeekin ados egon ez arren ere obeditu behar zirela uste zuen. Izan ere, gure aitaren osaba Alejandro esaten zuenez, taloen modukoak izaten dira legeak, egiten diren modukoak. Baina, Sokrates instituzionalista zen, eta, heriotzara kondenatu zutenean, lagunek exiliora joateko proposatu ziotenean, ezetz erantzun omen zuen. Sokratismo instituzional horren aldean, Aristiporen sokratismoa oso bestelakoa zen. Lokarririk eza bilatzen zuen, harreman politikoetatik aska-

³⁵ Zarandona, 177, 178.

³⁶ Zarandona, 46.

³⁷ Guillén, Claudio. 1995. *El sol de los desterrados: literatura y exilio*. Barcelona: Quaderns crema.

tzea, identifikazio sozialak eta kontra-identifikazio sozialak gainera kentzea. Babesak eta komoditateak ditugu gizartean, baina serbidunbre handien truke. Geure pribilegioek gaitibatzen gaituzte. Nor da esklabo? Alde egin ezin duena, hiritik, naziotik, edonondik.

Libertate hutsa zen, Aristiporentzat, Atenasetik edo Greziatik alde egin ahal izatea, ez beste inon etxerik aurkituko zuelako, baizik eta bere askatasun edo desanparo hori eramango zuelako aldean.

Xenofontek *Memorabilia* liburuan laburbildu zuen Aristiporen ikuspegia, honen eta Sokratesen arteko elkarriketa bat aipatuz, non dizipuluak lotsa gutxiarekin erantzuten dion maisuari honela:

Ni ez naiz inongoa, atzerritarra naiz nonahi.³⁸

Hori ez da kosmopolitismoa. Deklarazio horretako kosmopolitismoa negatiboa da. Aristipok ez du bere burua inongo tokira erreduzitzen, baina ezta beste inora hedatzen. Ez du kosmopolitismoa proklamatzeko, baizik eta edonon sentituko dela arrotz.

Aipatutako elkarriketan, gizakia animalia politikotzat hartzen duen Sokratesekin solasean, Aristipok gizakiaren autosufizientzia eta askatasuna aldarrikatzen ditu modu erradikalean. Sokratesek abisatuko dio, ez zentzurik gabe, gizabanakoaren askatasuna gauza ahula eta galkorra dela, erraz bihurtzen dela morrontza.

* * *

Batzuen ustez, giza existentzia exilio gisa baino ezin daiteke ulertu. Erradikalki adierazi zuen hori Arthur Rimbaudek, ez bakarrik entitate kolektiboek, baizik eta bizitzeak:

Ze bizitza! Benetako bizitza ez dago hemen...³⁹

Ez gaude munduan. Zibilizazioa eta giza izaera ere arbuiatzen zituen Rimbaud gazteak. Desterratu egin zuen “berak bere burua”, eta alde egin zuen etxetik, herrialdetik, Frantziatik, literaturatik eta kulturatik, basamortu urrunera.

* * *

Etxerik gabe, naziorik gabe, ezer gabe sentitzen da Imanol, gurasoek abandonatua eta denek abandonatua. Imanol madarikatzailea (“madrarikatua

³⁸ Xenofonte. KA ≈ 371. *Memorabilia*. Bigarren liburuan.

³⁹ [Quelle vie! La vraie vie est absente...] Rimbaud, Arthur. 1873. *Une saison en enfer*.

mundu madarikatu honetan dagoen guztia”). Benetako etxerik ezin da izan, ez aitaren etxerik, ez amarenik. Aitak Venezuelako lautadetan euskal base-rien trinkotasun eta duintasuneko zerbait eraiki arren, aitak aitona-amamei konfiskatutako etxea familiaren oroimenean mantentzen ahalegindu arren:

Gure etxea —benetan gure bihotzetan baino existituko ez zen etxea.⁴⁰

Paulinoren etxea imposiblea da. Mikelek zuzen-zuzen esango dio hori aitari, edalontziko whiskiari eragiten dion artean:

Hobeto esplikatuko dizut, aita. Nik ez dut sekula esango benetan sinetsita “hauxe da nire etxea”. Eta uste dut gauza bera gertatzen zaiela Imanoli eta Anderri.⁴¹

Ez dute etxea sentitzen, ez hemengoa, ez hangoa. Aita exiliatuaren semeak exiliaturik sentitzen dira. Eta desterrua des-denbora ere bada, behin betirako behin-behinekotasuna, orainaldiaren galera eta, beraz, etorkizunarena ere bai.

Egia da esperientzia eta izaera kosmopolita jaso dutela oinordetzan, Mikelek aitortzen duen bezala, aitari egindako kontzesio txikia. Baina ez dute Plutarkok aipatutako moduko gotorlekurik aurkitzen (“heleniarren edozein gotorleku da nire aberria”), ez bada euskal etxe deskafeinatu aspergarri batzuk. Semeen erreklamazioak, Plutarkoren irudipenekin barik, Aristiporen desilusioarekin kutsatzen dira. Ez dute aberririk aurkitzen aita-amen jaioterrian. Guardia Zibilaren eta Jendarmeriaren kuartelak baino ez dituzte han topatuko, eta jende menderatu pila bat etxean euskaraz egiten dutela ezkutatzen, edo erakusten, erdaraz.

Euskaldunak deserrian bizi dira euskal herrian bertan, sorterritik egundo irten gabe ere. Independentzia, inork egiten ez duen ametsa da. Eta kosmopolitismoa, edonon etxean sentitzea bada kosmopolitismo, euskaldunak etxean ere ezin dira ondo sentitu. Ezin dute inon esan, herri moduan, “hau da nire herria”. Ez han, ez hemen: lekuz kanpo daude nonahi.

Kontzeptu nahasketa bat agertzen da maiz semearen argudiaketan (aitarengandik heredatua izango da beharbada): aberria norberaren jatorria, familiaren lekua, norberaren hizkuntza da batzuetan; aberria estatu propioa lortzeko ahaleginean ari den nazioa da beste batzuetan. Paulinoren ibilbide pertsonala proiektu politiko honekin lotuta dago, baina ezin dira zentzuak nahastu:

⁴⁰ Zarandona, 46.

⁴¹ Zarandona, 92.

Exilioa ez da paradisua abandonatzea, baizik eta alde egitea, paradisu-
sua lepoan hartu eta aldean eramatea, paradisuaren oroitzapen eta oro-
min hori paradisuaren gauzatze bihurtu nahirik...⁴²

10. Parentesi bat asmo politikoaren zilegitasunaz

Uko egiten dio Mikelek euskaldunen proiektu nazionalaren analisi histo-
riko-politikoari. Minberaturik, barru-barrutik mespretxatuz aitaren ideiak; aita-
ren “idealak”. Estaturik gabeko nazionalismoaren “beatokeriaz” mintzo da, eus-
kaldunen (euskaldun askoren behintzat) nazioa auto-antolatzeko asmoa gezur
erlijiosoei eta arrazoi psikopatologikoei egotziz. Mikelek irakurrita eta ondo sine-
tsita daukala ematen du Jon Juaristik euskaldunen autodeterminazio eskubidea
edo borondatea deslegitimatzeko argitaratutako *El bucle melancólico*.⁴³

Ezohiko jakituria eta gorrotoz idatzi zuen Jonek, euskaldun irredento ho-
rien irrazionaltasuna eta gaixotasun kolektiboa frogatu guran. Euskaldunen
proiektu politiko nazional alternatiboa “patologia ideologiko” hutsa litza-
teke, haren tesiaren arabera, ez pentsatu edo ez eztabaidatu beharreko ara-
zoa, baizik eta estirpatu beharrekoa.

Estatu espainolak beti izan du, bestalde, gura haina botere zirujau- edo
borrero-lan hori gauzatzeko. Ez zen jarrera berria Jonena, baina bai erudi-
zioaren eta jatorriaren aldetik ezohikoa, eta laster gailendu zen bera nazio-
nalismo espainolaren defendatzaile intelektual sutsuen ilara ilustrean: Vic-
tor Pradera (*Regionalismo y nacionalismo*, 1917), Gregorio Balparda (*Errores
del nacionalismo vasco*, 1918), Juan Olazábal (*Errores nacionalistas y afirmación
vasca*, 1919), Ramón Sierra Bustamante (*Euskadi: de Sabino Arana a José Anto-
nio Aguirre*, 1941), Maximiano García Venero (*Historia del nacionalismo vasco*,
1945, 1968)... Heterodoxia aireko aurpegiak agertu ziren halako batean
 (“The apparition of these faces in the crowd: / Petals on a wet, black bough”,
kantatzen zuen Ezra Poundek), betiko botereen bozeramale.

Independentismoa, Maximiano García Venerorentzat, etsipen ekintza
zentzugabea zen, eta Aberri zilegi bakarraren aurkako krimen larria:

Euskal Herriak bere espainiartasuna gorde behar du, eta izaera nazio-
nal horren aurka egiten duen edozer gauza zirkunstanzia hutsa da, eta
liburu honekin aztertu nahi dut, non hitz guztiek Espainiako Aberriari
balio dioten...⁴⁴

⁴² Zarandona, 112.

⁴³ Juaristi, Jon. 1997. *El bucle melancólico: historias de nacionalistas vascos*. Madril: Planeta.

⁴⁴ Erdaraz irakurri beharrekoa da, euskarara itzuli ere ezin delako artez egin: *Vasconiaz* ari da, hasteko, Euskal Herriari izena ere onartzeko zailtasunekin:

Erudizio eta erretolika berriekin (lehen Benito Mussolinirekin, eta orain Conor Cruise O'Brienekin), baina berdintsu. Alegia, irrazionalak, patologikoak eta krimenak omen dira Espainia delako eraiketa inperatibo horren aldekoak ez diren ideia eta proiektu guztiak.

* * *

Hurrengo liburu batean, Jon Juaristik nazionalismoa zer den, nori-eta, bere aitari esplikatu zion.⁴⁵ Espainian nazionalistarik ez dagoenez (kondizio naturala delako espainola izatea, eta unibertsa izateko modu abantailatua), *no-nacionalista* izatearen posizio pribilegiatu horretatik, bere aita gizajoa hartu zuen Jonek interlokutore eta nor-iraindu.

Jon Juaristik, poesian ere, eginda zizkion berebiziko distintzioak aitari. Hauxe idatzi zuen "Spoon River, Euskadi" poema labur ezagunenean:

Galdetuko duzu, bidaiaria, zergatik hil garen hain gazte.
Zergatik hil dugun hain ergelki.
Gure aitek gezurra esan ziguten, horixe da dena.⁴⁶

Ezin da "nuestros padres" hori zehazki itzuli, baina ez "aita-amez", baizik "aitez" ari da bakarrik, Gabriel Arestiren poeman etxearen jabe ziren aitez. Gogoratu Pier Paolo Pasolinirena: amarekiko harremanak pribatuak eta ideologikoki inproduktiboak direla, eta aitarekikoak publikoak eta benetan politikoak.

Jon Juaristiren apotegmaren abiapuntuko testua epitafio bat da, Rudyard Kiplingek idatzi zuena 18 urteko semea Looseko batailan hil ziotenean 1915eko irailaren 27an. Gerra amaitzean, Kiplingek auto-inkulpazio ikaragarri bat idatzi zuen semearen epitafiotzat. Hildako semeak hartzen du hitza:

Inork galdetzen badu zergatik hil garen,
esan egiezu: gure aitek gezurra esan zutelako.⁴⁷

Aitaren erru-errekonozimendua zen. Europar estatuen nazionalismo inperialisten harrokeria eta gezur politiko-mediatikoengatik akabatu baitziren hainbeste gazte Lehen Gerra Handiko hilaldi ikaragarrian. Kiplingek bere ha-

Vasconia ha de conservar su españolidad, y cuanto contradiga ese carácter nacional es una mera circunstancia, a cuyo examen pretendo contribuir con este libro, en el que todas las palabras sirven a la Patria española... (García Venero, Maximiano. 1945. *Historia del nacionalismo vasco*. Madril: Editora Nacional)

⁴⁵ Juaristi, Jon. 2002. *La tribu atribulada: el nacionalismo vasco explicado a mi padre*. Madril: Planeta.

⁴⁶ Juaristi, Jon. 1987. *Suma de varia intención*. Iruñea: Pamiela, 28.

⁴⁷ [If anyone asks why we died / tell them, because our parents lied.] Kipling, Rudyard. 1919. *The Years Between. Epitaphs of the War* atalean, "Common Form" poema.

rrokeria inperialista aitortzen du eta, hain zuzen, berak bultzatu zuela semea soldaduskara eta gerrara.

Juaristirena ariketa alderantzizkoa da, ex-kulpazioa. Eta errua, nori-eta, bere aita Anton Begoñako organista gizajoari. Berrogei urte luze ia ezer ezin esanez aguantatu, Guardia Zibilaren eta Poliziaren bota beltzei men eginez, seme-alaben paperezko iraultzatxo harroak ere jasan, eta gero hau. Borroka armatuaren errua ere bere aitak zeukala, herrialde hori konkistatu eta okupatu zuen Estatuak barik. 1975eko irailaren 27an exekutututako Anjel Otaegiren edo Juan Paredesen aitak ikertu beharko lirateke orduan, tiroak nondik zetozen jakin eta zigortzeko.

Jonen aita berezia izango zen beharbada, pentsatzen zuena kontatzen ziona semeari, zeren eta 60ko eta 70eko hamarkadako gazte gehienek alde-rantzizkoa kontatuko genuke, gurasoak diktadurari men eginda bizi zirela, beldur handiaren menpean, eta gerrako kontuak isilpean gordetzen zituztela, seme-alabek kartzelara bidea ez ikasteko.

70eko hamarkadako nerabeei lagun apur bat zaharragoek eman ziguten 68ko maiatzaren eta Vietnamgo, Burgoseko prozesuaren edo liburu debekatuen berri, FEN asignaturaren etsaminak pasatu behar genituenean eta Don Celes besterik ez genuela bizitza txistetzat hartzeko. Dena dela, borroka armatura beste batzuek bultzatu gintuzten: kapitalismoa komunista fabrika bat da; Espainia separatista fabrika bat; eta Guardia zibila izan da hemen askogatik erakunderik terroristena.

* * *

Engainuaz, gogoangarriak dira Eugenio Imaz filosofoaren hitzak, Mexikon finkatu berri, errefuxiatuen, exiliatuen etorkizun ilunaz. Gerrako galtzailen hurrengo porrota iradokitzen. Porrot militarren ondoren, galera hermeneutikoa, memoriaren eta historiaren arteko kereila horretan:

Gudua galduta dago. Eta egia?⁴⁸

Egia hori errepublikarren esperientzia zen (demokraziaren haragi gordina izan omen zen errepublika hura, larru baten bila), gerra urteetan urratuta eta suntsitua. Orain, Errepublikari eta Gerra Zibilari buruzko interpretazio nagusien aurrean, ematen zuen errenditu beharra zegoela berriro. María Zambrano-

⁴⁸ [la verdad no está en el cielo, poblado de intuiciones, sino en la tierra, en esta tierra que piso, junto a mí, y que esta verdad hay gentes que me la quieren arrebatar. Y que, entonces, no es contemplando como gano la verdad sino combatiendo. Y desde ese momento me puse a combatir, a conquistar la verdad. El combate se ha perdido y ¿la verdad?] Imaz, Eugenio. 1940. "Discurso in partibus". *España peregrina*, 1, 15.

ren egiari José Ortega y Gasseten egiak nagusituko zitzaizkiola, normala denez, indio miserablearenari enpresario handiarena nagusitzen zaion bezala.

Eta orduan, Eugenio Imazek “egia”ren alde egiten du, eta egia hori ez da analisi fin espekulatibo konplexu bat, baizik ere “herriaren egia” itzel, mindu eta nekagarria. Ez da mundua amaitu gerra amaitu delako. Alderantziz, gerra amaitu delako heldu da mundu hau herriaren egia ezainduz.

Zeren badago galtzaileen egia kaltetu eta nekatu hori, eta badago irabazlearen egia, botereak instituzio dotore eta ospetsuetatik zabaltzen duena han eta hemen, eta egundo nekatzen ez dena. Boterearen gezur guziek osatzen dute, Eugenio Imazek dioenez, egia gisa aurkezten den engainua:

Engainatu naute, engainatu gaituzte. Ez dakit nork. Baina engainatu gaituzte. Eskolan engainatu gaituzte, elizan engainatu gaituzte, gure familietan engainatu gaituzte, egunkarietan engainatu gaituzte. Engainua hain da izugarria, hain osoa eta zirrikiturik gabekoa, ezen hura estaltzen duen kapak ere, hizkuntzak, bere burua kontraesanean jartzen baitu eta engainatzen nau, engainatzen gaitu. Ordenaz hitz egiten du eta guztiz kontrakoa esan nahi du; herriarekiko maitasuna, eta guztiz kontrakoa; espiritismoa, eta guztiz kontrakoa; zibilizazioa, eta guztiz kontrakoa; bakea, eta guztiz kontrakoa...⁴⁹

Eta gure herriaren egia? Inork ere ez du kontuan hartuko gure egia? Geuk ere ez?

* * *

Nazionalismoa arriskutsua da, jakina. Nazionalismoa makina politikoki eraginkorra eta potentzialki arriskutsua da, bapote-makina bezala.

Nazio-estatuak ez dira antolatu askatasunaren filosofiak imajina zezakeen bezain egokiro. Jean-Jacques Rousseauk zorrotasunez kritikatu zituen gizartea eta hazkundera, artea eta zientzia, eta abisatu zuen sentimenduak nagusitzen direla arrazionaltasunaren gainetik. “Kontratu sozialak” traba asko izan ditu beti. Gobernua, herritarren borondatearen arabera kontratu sozialaren bidez antolatu behar zela proklamatu zuen, eta horrela ipini zituen nazionalismo modernoaren oinarriak.

Uste zuen Rousseauk errepublika txikitan antolatuko zela jendea, beren buruaren jabe, askatasunez elkartzuz. Askatasuna eta elkartasuna, Pierre-Joseph Proudhon konturatu zenez kontzeptu filo-anarkistak. Jendeak erabakitzea, zer beldurgarria!

⁴⁹ *Idem.*

“Estaturik gabeko nazionalismoaren beatokeriaz” mintzo da Mikel, Jonen moduan. Baina dikotomia politikoaren beste aldean ikusten dena “estatudun nazionalismoaren santutasuna” baino ez da, gerraren bidez eratua, gizarteari indarkeriaren monopolioaren bidez ezarritik jende guztiari paradisua.

11. Komunitaterik ez dutenen komunitatea

Parentesiaren ondoren, Aristiporen zeinupera itzulita, exilioaz jarraituko dugu. Paulinoren erresistentzia pertsonal eta kolektiboaren defentsan.

Ez da erraza batzuetan prozesu malenkoniatsutan ez sartzea. Batzuetan, sartzeko imintzioa egin behar da, ez sartzeko. Tangoa horixe da, malenkonia espantu batzuk egin, malenkonia benetakoa izanda ere, beste ideia batekin.

Juan Gelmanek idatzi zuen *Mi Buenos Aires querido*, “ni jaio nintzen herria”, inhabitablea bihurtu da. Carlos Gardelek ez luke melodrama hitz gutxiagotan esplikatuko. Gazteak batzuk, torturatuta, mantso eta dultze bihurtzen dira; gainerakoak ez zaizkie ardura. Baina, zer egin?

Irauten ikasi behar dugu.

Ez alde egiten ezta bertan geratzen,
baizik irauten,
nahiz eta seguru izango dela
tristura eta ahanztura gehiago.⁵⁰

Irauten ikasi behar dugu: *Hay que aprender a resistir*, dio Gelmanek, “irauten” itzuli dut, “erresistentzia” aipatu gabe, ez dadin zentzu epikoan ulertu, baizik zentzu intimoan. Exiliatuaren tristura duintasun bihurtu behar da, “gas pobre” hori barne-indar bihurtzeko.

Injustiziaren kontra egitea arriskutsua da, komoditate handia da morrontza (morrontza boluntarioa). Baina, derrepentean, erresistentzia aldarrikatzen du Juanek, montonero horrek. Erresistentzia, erresistentzia irautea. Eta ez erresistentziarekin dena soluzionatuko delako. Zeren, erresistentziarekin, askatasun apur bat lortuta ere, ez da dena bere onera etorriko.

Beste tristura eta beste ahanztura batzuk izango dira orduan ere. Beste botere batzuek kudeatuko dituzte orduan injustiziaren industria eta ahanzturaren industria.

* * *

⁵⁰ [Hay que aprender a resistir. / Ni a irse ni a quedarse, / a resistir, / aunque es seguro/ que habrá más penas y olvido.] Juan Gelman. ≈ 1962. “Mi Buenos Aires querido”.

Justizia eta oroimena hauskorrak dira, izan ere. Baina, komunitate guztiek eraikitzen dituzte injustizia eta ahanztura industriak?

Filosofia politikoaren muga, Georges Batailleren ertz-pentsamenduari egingo diogu galdera: Zergatik eratzen dira komunitateak? Gizabanakoek beren isolamendutik atera eta, heriotzaren aurrean, biziraupena eta osotasuna bilatzen dutelako. Zerk behartzen ditu gizakiak beste gizakiekin batzera? Heriotzak, Batailleren ustez:

Nazioa edo armada, heriotza ukatzen saiatzeko daude munduan, heriotza angustiarik gabe loria bihurtzen ahalegintzeko.⁵¹

Heriotza da komunitatearen oinarri sakonena. Norbanako bakoitzaren galkortasunaren angustiak elikatzen du komunitatea, denboraren botereari aurre egiteko antolaketa finko, handi eta amets antzekoa. Nazioak, anti-goaleko intimitate galduaren oroiminarekin eraikitzen dira, berriz elkartzeko proiektu utopikoaren inguruan, homogeneousazio eta totalizazio prozesuak eraginez. Eta bazterketak, jakina. Haztea konkistatzea da, eta zokoratzea, konbentzitzea eta badaezpadan militarizatzea, biolentzia baita, fisikoa edo sinbolikoa, subiranotasuna eta iraunkortasuna finkatzen dituen.

Bizitzak gizakiak elkartzea eskatzen du, eta gizakiak lider baten inguruan elkartzen dira bakarrik, edo tragedia baten inguruabarrean.⁵²

Komunitatearen eta boterearen egia miserablearen aurrean, Batailleren ertz-pentsamenduak subjektuen askatasunari eta ezjakintasunari begiratzen die. Subjektuak ezjakinak dira, ez filosofia edo zientzia gutxi dakitelako, edo komunitatearen borondate totalizatzaileak eta progresuak ez duelako oraindik deskubritu ez dakit zer. Alderantziz, porrotaren aitortza da ezjakintasuna, jakituria- eta botere-borondatearen porrotaz ohartzen baita subjektua, eta puntu horretan hasten da, ezer gehiago eduki ezin duen puntuan, ezer ez jakiten, eta desegiten. Heriotzean, hau da, gutako bakoitzaren momenturik ohikoen eta berezienean. Guztion eta bakoitzaren zaurian, haratago ezer ez izatearen angustian.

Beraz, komunitate erlijioso, nazional edo politikoen aurka, horietako edozein menderaketan oinarrituko litzatekeelako, Bataillek komunitaterik ez dutenen komunitate unibertsala proposatzen du. Bururik gabeko komunitatea, azefaloea, Jainkorik gabe, erregerik gabe, gobernurik gabe, herririk gabe, bizitza odoljariora den zauria besterik ez dela konprenitzean oinarrituta. Komunitate negatiboa: komunitaterik ez dutenen komunitatea.

* * *

⁵¹ Bataille, Georges. 1937. "Propositions". *Acéphale*, 2, 17-21.

⁵² Bataille, Georges. 2003. *La conjuración sagrada: ensayos 1926-1939*. Buenos Aires: Adriana Hidalgo editora, 205.

Komunitatea galdu dutenek hobeto ulertzen dute zer den komunitatea. Exiliatuek, beren negatibotasunean pintoreskotzat hartzen diren minorizatuek edo “estaturik gabeko” nazionalistek badakite zer ez daukaten. “Estatudun” nazionalistak ez dira ohartzen, arrainak itsasoan bezala bizi baitira beren nazionalismoan. “No-nacionalista” moduan aurkezten dira eta, paradixikoki baina logika guztiarekin, ikaragarri oldarkorrek dira beren nazio-estatu hori zalantzan jar dezakeen edozerekin. Konstituzionalistak direla proklamatu dute, baina ez dute inola onartuko bestelako konstituzionalistarik.

Komunikazioa eta komunitatea, komunikazio esparru bat da komunitatea. Nazioa ere horixe da. Komunikazioa, berez, komunitatea sortzeko ahalegina da. Nazio-estatuak uniformizaziorako darabil komunikazioa, mendetako lana da.

Baina komunikazioan oinarrituriko komunitatean ez da zertan homogeneizaziora jo, igual komunitate alternatibo batzuk indartuko lirateke. Komunitate alternatiboen artean liskarrak sortzen dira.

Komunitate politikoen porrotak komunikazioa erraztuko luke beharbada, edo ez.

* * *

Komunitaterik ez dutenen komunitateak orduan. Aristiporekin zeinupean ipiniko nuke Johannes Urzidil ere, Pragako judu alemana. Bohemiarra, ur gaziaz bestaldeko Estatu Batuetan exiliatua, itzultzeko herrialderik gabe geratu zena. Txekoslovakia ezin zuen etxetzat hartu.

Euskal herritik pasatu eta enpatia sentituko zuen. Euskaldunen egoera antzekotzat hartu, eta *Caramabluko urrea*⁵³ nobelatxoa idatzi zuen. 1937an, hizkuntza altxor lez harpe sakon batean gordeta duten Bidasoako mugaz bestaldeko euskaldun batzuei buruz.

Urzidilek neologismo bat sortu zuen, zehazki adierazteko terminorik ez dugun gauza konkretu bat azaltzeko: “hinternazionala”. Munduan kontuan hartzen diren nazio-estatuaren kontzertutik at geratu direnen nazioarteko sentimendua eta aktibitatea, “h” ironiko horrekin.

Ezaguna da munduan bohemiarren, euskaldunen, maputxeen edo amazigen hinternazionalismoa.

* * *

Palestinarrak ere harreman hinternazionalak dituzte. Kuban, Habanara etxe gabe Orienteko probintzietatik etortzen direnei “palestino” deitzen zaie.

⁵³ Urzidil, Johannes. 2005. *El oro de Caramablu*. Tafalla: Txalaparta. Orijinala (*Das Gold von Caramablu*) alemanez argitaratu zen *Azken tonbola* (*Die letzte Tombola*, 1971) bilduman.

Palestinarrak ez du bizitzeko moduko nazio-estaturik, ez han, ez hemen. Mahmud Darwishek esplikatzan du ezin laburrago. Familia 1948an kanporatu zuten Galileatik, espetxealdia jasan zuen Israelen ezkerreko ekintzaile moduan, eta betiko desterrua gero:

Exilioa nire izatearen partea da. Exilioan bizi naizenean, neure lurra neurekin daramat. Exilioa, neure lurrean bizi naizenean, neure barruan sentitzen dut. Exilioa da okupazioa. Exilioa da justiziarik eza. Exilioa da kontrol militarretan orduak ematea. Exilioa da jakitea etorkizuna ez dela oraina baino hobea izango. Etorkizuna beti da okerragoa guretzat. Horixe da exilioa.⁵⁴

12. Exilioa pentsakera laboratorio lez: Edward Said

Josu Landaren eleberriaren inguruko zirkulua errebisatzen jarraituta, Edward W. Saiden obraren zirkulua apur bat gainjarri eta intersekzio interesgarri bat aurkitzen da.

Said, jatorri palestinarreko newyorktarra, Columbia Unibertsitateko ingeles eta literatura konparatuko irakaslea, ezaguna egin zen batez ere orientalismo inperialistari buruz egin zuen azterketagatik. Exilioari buruzko Saiden ikuskera bere esperientzia pertsonaletik dator, bere memorietan, *Lekuz kanpo* (*Out of Place*, 1999) lanean, kontatzen den bezala, Israelgo estatuaren okupazioagatik familia osoak Palestinatik ihes egin behar izan zuelako:

Hizkuntzarekin batera, geografia da (batez ere lekualdatze formako irteera, etorrera, agur, exilio, oroimin, antsietate, nonbaitekoa izateko sentimendu eta bidaiekin) lehen urte haietako nire oroitzapenen muina. Bizi izan naizen leku guztiek (Jerusalem, Kairo, Libano eta Ameriketako Estatu Batuak) balio sare konplexu eta trinkoa osatzen dute eta oso garrantzitsuak izan dira nire hazkuntza prozesuan, nire identitate hautuan, eta nire buruaz eta bestez dudak kontzientziaren eraketan.⁵⁵

Familiak Egipton bilatu zuen babesa, eta gero Ameriketako Estatu Batuetan finkatu zen. Lekualdatze eta familia alienazio egoera horrek beti baldintzatu zuen Saiden bizitza. Baina, historia pertsonal traumatiko horretatik sortu arren, Saidek proposatzen duen “exilio” kontzeptua haratago doa.

Gertaera historiko eta kulturalak “exiliatuaren” ikuspuntutik begiratu behar direla dioenean, dominazio egoeretan baztertuaren ikuspegia ere eza-gutu behar dela ari da esaten. Aurreiritziak alde batera utzita, edozein kul-

⁵⁴ Perry, Lucy A. 2020-uda. “The Poetics of Dispossession in Mahmoud Darwish’s ‘Exile’”. *Journal of Palestine Studies*, 196, 91-108.

⁵⁵ Said, Edward W. 2001. *Fuera de lugar*. Bartzelona: Grijalbo, 14.

tura objektiboki aztertzeko distantzia da Saidek proposatzen diena literatura kritikariei, eta oro har kultura analistei. Saiden ustez, benetako “exiliatu” ez diren eta gizartean normal bizi diren kritikoek ere “exiliatu” optika hau hartu beharko lukete.

Kontraesankorra dirudi exilioaz esanahi bikoitz hain diferentz hitz egitea, alde batetik esperientzia erreal eta krudel gisa (gizakiarengan sendatzen ez den zauria), eta bestetik zentzu metaforikoan ikasketa kulturalen metodo moduan (kultura arrakalaren kontzientzia). Kontzeptuaren anbiguotasuna agerikoa da, baina ikuspegi egokiagoa sustatuko luke norberaren kultura aztertzeko orduan. Gizarte modernoan, Walter Lippmannek azaldu zuenez, pertsonak (Platonen kobazuloko biztanleen moduan) ez dituzte errealitateak hautematen, baizik eta errealitateon itzal desitxuratuak, eta irudi mental eta uste horiei deitu zien Lippmannek “iritzi publikoa”, baina deitu ahal zaie “kultura jenerala”. Bueno, nik esango nuke “engainuez” ari garela berriro.

Goitik behera datozen engainuez. Kultura dominante horrekiko hartzen den jokabidearen arabera, Umberto Eco integratuak eta apokaliptikoak bereizi zituen. Saidek intelektual integratu eta marjinalz hitz egiten du. Intelektual integratua bere kulturaz beterik eta bere kultura horretaz harro dagoena izango litzateke.

Exiliatuaren ikuspuntua, bere komunitatearen barruan nagusi diren kontzeptuak zalantzan jartzen dituenaren optika izango litzateke, bestearen pentsamenduak eta emozioak antzemateko gauza denarena. Benetako exilioa ez da aukeraketa, halaberharrez gertatzen da. Said palestinar jaio zen, eta horrek baldintzatu du bere bizitza erremediorik gabe, dimentsio mingarri hori eman. Beti lekuz kanpo egotearen antzeko sentsazioa eman dio berari, nahiz eta gai hori bizi den gizartean ez izan garrantzitsua, oro har, eta bere alde hori jende gehienari ia oharkabea pasatzen zaion arren.

Hori da New Yorkeko familia palestinarren kasua, edo Venezuelako lautadetan deserritutako familia euskaldunarena. Exilioaren gertakaria eta kondizioa oharkabea pasatzen da seguru asko ingurukoentzat. Azkenean, guztiok gatoz nonbaitetik, ez da zertan hasi dena kontatzen. Inork ere ez ditu bere zauriak erakusten. Baina exiliatuak ezin du bere zaurietatik urrundu. Ez ditu zauriak erakutsiko, baina igual ez du bere zaurietatik urrundu nahi.

Intelektualak distantzia hartu beharko luke bizi den gizartetik, kontatzen ez diren min marjinal horiek eta kontuan hartzen ez diren gauzak konprenitzeko.

* * *

Ez da erraza exilioaren pribilegioez hitz egitea, baina exiliatuak baitu, agian, batzuk. Hiperbole unibertsalista etereoak aldarrikatzen zituen

Plutarkok. Pietramalatik ateratzearen onuraz mintzo zen Dante, oinak apur bat lurreanago. Egia da, exiliatuak kultura bakarra baino gehiago ezagutzeko eta bi hizkuntza baino gehiago erabiltzeko pribilegio xumea izaten du.

Intelektual integratuak, berriz, hizkuntza bakar baten bidez kultura unibertsal guztia menperatzeko izaten du jeneralean pribilegioa (termino bera errepikatzen da, pribilegio mota bera izan ez arren). Charles Péguy, adibidez, oso harro zegoen “dena” irakurtzen zuelako frantsesez, ez zuelako beste ezein hizkuntzatan sekula ezer irakurtzeko beharrik izan, frantsesa “nahikoa” zitzaiolako kultura unibertsal guztia ezagutzeko. Eta frantses kulturaren eta bere buruaren unibertsalismoaren seinale eta egiaztabidea iruditzen zitzaion hori.

Charles Péguy frantsesez bezala, kultura nagusi guztietan daude intelektualak uste dutenak munduko kultura guztiak ezagutzen dituztela gaztelaniaz, ingelesez, arabiera klasikoaz, txineraz edo errusieraz. Kultura konkistatzaile eta inposatzaileen pribilegioa da irekitasun eta unibertsaltasun hori, orojakintasun poligrafiko horrek beste kulturen ezabatzea ezkutatzen duen arren beharbada.

Intelektual “exiliatua”, oster, bere kultura propioa edukitzeaz eta sortzeaz gainera, behartuta dago beste hizkuntzen atalasea zeharkatzera. Pietramalatik atera eta beste kultura batzuk bizi behar izan ditu. Saidek, *Kultura eta inperialismoa* (*Culture and Imperialism*, 1993) idazteko orduan, gertakari inperialaren bi aldeetako (metropolikoa eta kolonizatuarena) ikuspegiak zituen. Ingelesez eta New Yorken idatzi zuen, “Mendebaldearen metropolian” ez ezik, berarentzat, “exilio-hirian”. Exiliatuak testigantza bizia ematen du, Inperioaren kulturaz aparte beste kultura batzuk bizi izan direla, eta bizi daitezkeela.

Kultura eta politika nagusietako intelektualen artean eskastu eta bape-reztu ohi dena. Intelektual exiliatuak munduari “besteen begiez ere” begiratzeko eskarmentua eta argitasun umila izan dezake.

* * *

Josu Landa ere beste gertaera politiko-kultural batzuen bi aldeetakoa da, jakina. Gatazkaren bi aldeak gainjartzen dira exiliatuarengan, eta exiliatuaren semearengan, eta ez presiorik eta tirabirarik gabe. Zatiketa hori, jakina, ezin da modu lasai, bakezko eta atseginean bizi. Exiliatuak, eta exiliatuaren semeak ere, aldean darama borroka, larritasuna, matraka guztia.

Aitarenak salatzen dituen semearen aukerak ere agerikoak eta eztabaidaezinak dira. Hizkuntzari dagokionez, esaterako, aitaren euskara egosgogor temosoaren aldean, eleberriaren autoreak espainiera berezko eta dotorea asu-

mitzen du. Semearengan poesiak erdaraz egiten du.⁵⁶ Naturala, bai, baina natural izenlagunaren esanahia ez da tolesgabea eta inozentea.

Zarandonan, Josu Landaren ikuskera “exiliatuak” markatzen du eleberrri osoa. Kontakizuna Venezuelan ubikatzen da gehienbat, aldenduta euskal herritik (*Euskal Herria*, Paulinoren berbategi ideologizatuaren ondorioa dela esaten du momentu batean Mikelek⁵⁷), baina eleberria distantziarekin dago idatzita eta argitaratuta, non-eta Mexiko DFn, beste “exilio-hiri” handi batean. Pertsonaiak bereziak dira, hurbilekoak eta lekuz kanpokoak aldi berean. Hausnarketak argiak, zorrotzak, arduragarriak, izugarriak dira askotan; alde batekoentzat nahiz bestekoentzat. Exiliatuaren semearen bikoiztasuna asal-dagarria da, familiaren exilio egoera oinordetzan hartzen duelako eta, aldi berean, bere familiatik kanpo sentitzen delako:

Hainbeste disonantzia izan ondoren nire bizitzan, azkenean ikasi dut arrazoi guztia ez izaten eta lekuz kanpo geratzen.⁵⁸

Exiliatuaren ikuspegi bikoitz hori ezin da etiketa gisa hartu, ez da inoren izaerari naturalki dagokiona. Aurreiritzi finkoak edo geografikoki definituak alde batera uzteko premia edo eginkizuna da. Identitate sendo eta ahistorikoen babesa utzi behar dela, inongo gotorleku plutarkistan errefuxiatu gabe. Beraz, exiliatuaren ikuspuntuak kezka intelektuala, ideologia dominantea zailantzan jartzea eta tribu-leialtasunekiko etena esan nahi du:

Subjektibotasun arduratsua landu behar du (ez barkabera ezta erregatua ere).⁵⁹

13. Hilda non jausi

Saidek “exiliatu” ikuspuntutik irakurtzen duen egileetako bat Joseph Conrad da. Hari buruz idatzi zuen lehenengo saiakera (*Joseph Conrad and the Fiction of Autobiography*, 1966), eta behin eta berriz itzuli zen gero poloniararren testuetara. Bada, Conraden ipuinen artean, Saidek bereziki interesgarritzat jotzen duen bat: *Amy Foster* (1901).

⁵⁶ Cernudarengan bezala:

La misma lengua con que hablaron antes,
y mucho antes de nacer nosotros,
las gentes en que hallara raíz nuestra existencia.
(Cernuda, Luis. 1962. “Peregrino”. *Desolación de la quimera*.)

⁵⁷ *Zarandona*, 116.

⁵⁸ “Fuera de lugar”, 393.

⁵⁹ Said, Edward W. 2005. *Reflexiones sobre el exilio*. Madril: Debate, 192.

Europa erdialdeko emigrante pobre, Amerikarantz daraman ontziak naufragatu eta, Ingalaterrako kostan lehorreratzen da. Arrotza da, ez daki ingelesez eta ez da ondo komunikatzen Yanko Goorall hori. Lana lortzen du, eta Amy Foster izeneko neskame batek adeitasun pixka bat erakusten dio. Ezkondu egingo dira, eta seme bat dute. Baina, Amy beldurtu egiten da Yankoren portaera batzuekin. Adibidez, bere hizkera “asaldagarrian” irakasten dio umeari otoitz egiten. Egun batean, Yanko gaixotu eta kalenturagatik burutik eginda bere hizkeran hasten delarik, Amyk umea hartu eta etxetik ihes egingo du, izuturik. Hurrengo goizean hilko da Yanko, bakarrik. Bezperan, ura eskatzen ari zen bere ama-hizkuntzan.

Sukarraren pasarte hori Conradek bere bizitzako gertaera konkretu bate-tik hartu zuen, antza denez. 1896an, ezkondu berri, eztei bidaian Frantzia- zeudela, Conradek kalentura izan zuen eta, burua galduta, polonieraz hasi zen hizketan, bere emaztea, Jessie, ikaragarri beldurtuz. Saidek apuntatzen du zaila dela Amy Foster irakurtzea Conradek berak horrela, Yankoren mo- duan, hiltzeko sentitu zuen izuaz pentsatu gabe, norbera bakarrik eta ino- lako kontsolaziorik gabe hiltzeko, inguruan inork konpreni ez zezakeen hiz- kuntzan eginez.

Exiliatuaren beldur neurotikoa hori hartu eta printzipio estetiko bihurtu zuen Conradek, Saiden ustez:

Conraden exiliatu guztiek dute izu hori, ezer komunikatzen ez duten begi arduragabeek argiztaturik, nolabait esateko, baina bakar-bakarrik hiltzeko izua.⁶⁰

Patu horretatik libratu zen, zorionez, Peli Anduiza *Polonorte* istripuz goiz hil zenean.⁶¹ Bere eskopeta zaharrari ustekabeen tiroa eskapatzean gainditu zuen *Polonortek* non-hil zalantza eta beharlekua. Hagatik apuntatzen du Mi- kelek *Polonorteren* herrikide batzuen errezeloa: suizidioaren susmo izugarria, arrazoizkoa, eta onartezina aldi berean.

Conraden izua da, sustraiak galdu ez dituen exiliatua jo eta izutzen duena, desterraturik (lurperatua izateko lurrik gabe) eta zentzurik gabe (inori ezer esan ahal izan gabe) hilko dela. Horixe Paulinok bere semeari azaldu nahi dion panikoa:

Bizitzak buelta arraroak izaten ditu, Mikel. Nire adinera hurbiltzen zarenean ulertuko duzu. Lehen, non bizi izaten zen arazoa. Orain, ara- zoa da ez dakidala non hil, zeren leku asko dago inor hilda jausteko ere ez dena ona.⁶²

⁶⁰ *Idem*, 188.

⁶¹ *Zarandona*, 27-32.

⁶² *Zarandona*, 178.

14. Exilioa literatura gisa: kontsolamendua

Said, exilioaz ari denean, ez da bizimoduko zorigaitzez ari bakarrik. Beste zerbaiti buruz ere ari da, hitzez eta istorioez, eta Plutarko ere aipatu behar:

Hitzik onenak eta fidagarrienak zorigaitz garaian agertzen dira, benetakoa lagunak bezala, onura moduan eta laguntza emateko.⁶³

Plutarkok desterratutako laguna kontsolatzeko idazten zuen, irakurleak hitzok irakurri eta bihotzean gordeko zituelakoan, ez baitziren penatzeko, baizik atsekabeen animatzeko, eta kuraia emateko. Gizakiok hitzetara eta istorioetara jotzen dugu bizitza era ulergarriagoan eta ederragoan eramateko. Errelatoei esker, lekuak espazio geologiko huts izan beharrean, esanguradun hegi bihurtzen dira. Literaturak ez du bakarrik entretenimendu gisa funtzionatzen, inguratzen gaituen munduari zentzua edo zentzu-eza emateko ere baliatzen da:

Orduan, komedian pertsonaia batek zoritxarra sufritzen duen lagunari ausarta izateko eta zorteari aurre egiteko esaten dion bezala, eta lagunak galdetzen dionean “nola?”, hark erantzuten baitu “filosofo baten moduan”, guk ere aurre egin diezaiogun zoritxar aldiari horrela, duintasunez, filosofoek bezala.⁶⁴

Josuren errelatoa ere exiliatuentzako kontsolamendua da, eta filosofiaren duintasunez eta jasotasunez dago idatzita. Josuk, Platon aztertuz hezi ondoren Plutarko bezala (Plutarkok zinikoengandik eta estoikoengandik ere ikasi zuen), Franz Kafkaren “Aitari gutuna” eraman eta Jon Juaristiren *Bukle malenkonikoa* ekarri ondoren, kontsolamendu (*consolatio*) edo filosofia saio ziniko-estoiko hau egin du. Errealitatea eta gurariak bateratuz, Josuren narrazioak “errealitatearen konplexutasuna” antzeman eta sentiarazten du bere idazkera argiarekin, bere ezagutza kultural sakonekin, eta bere ikuspuntu kontraesankorrarekin. Gainera, hil ala biziko kontuez ari dela konturatzen da irakurlea.

Kontu nagusitzat har daiteke, Mikelek, kosmopolitismoaren alde, oroimenean babesteko aitaren joera arbuiatzea. Ukazio hori modu plutarkistan egiten da. Honela idatzi baitzuen Plutarkok:

Zure aberritzat jotzen zenuen hartatik lekuz aldatu, eta hutsa eta tamalgarria iruditzen zaizu beste edozein leku, eta hori tragikoa da. Baina, ez da berez aberririk, ez etxerik, ez larrerik, ez aroztegurik, ez osasun-salaririk, baizik eta, Aristonek esaten zuen bezala, halakotzat hartu eta halaxe

⁶³ “Migraciones forzosas en el mundo clásico: Plutarco y la construcción social de la identidad”, 166.

⁶⁴ *Idem*.

erabiltzen dena, edo, hobeto esanda, hala izendatzen eta halaxe deitzen dena, bertan bizi denaren eta erabiltzen duenaren arabera.⁶⁵

Aberria ez da naturala, ez da naturak determinatutako zerbait, baizik eta jendeak eraikitakoa. Eraketa, antolaketa edo, dena delako, kulturala, politikoa. Hala ere, bada naturalizazio deitzen den zerbait, gauza batzuk naturalizat sentitzen dira eta beste batzuk antinaturalizat.

Zuzenbidean, naturalizazioa pertsona batek berea ez den beste nazio-estatu bateko naziotasuna bereganatzeko prozesua eta horren ondorioa da. Kasu batzuetan posible da beste herrialde bateko naturalizazioa eskuratzea berezko naziotasuna galdu gabe, naziotasun bikoitzaren bitartez, beste batzuetan ez.

* * *

Zuzenbidearen alorrera pasatu gabe, “Exilioa eta literatura” gai zabalean kokatzen da *Zarandona* eleberri hau. Vladimir Nabokov edo Bertolt Brecht, Julio Cortázar edo Witold Gombrowicz, Andima Ibiñagabeitia edo Ngūgĩ wa Thiong’oren ilaran jarri da Josu Landa.

Desterratuak eta errefuxiatuak, emigrazioa eta exilioa, gai garrantzitsuak izan ziren XVIII. eta XIX. mendeko literaturan, erdigune bihurtu dira XX. eta XXI. mendeetan. Funtsezko eta giltzarria, exilioa halabehar eta bizimodu gisa, eta halaber, pentsamendu soziopolitikoarekiko eta literaturarekiko jarrera gisa.

Exiliatuak eta idazleak antzekotasun batzuk dituzte, nahiz eta batzuen desterru benetan mingarria ez datorren bat besteen bokazio eta erretorika literarioekin. Baina bai, bai exiliatuak eta bai idazleak atzera-begiraka bizi dira, hurbilarekiko arreta faltagatik ameslari ospea pilatuz. Bai exiliatuak eta bai idazleak espazioaren eta denboraren plano desberdinen konbinazioak artikulatzen eta sufritzen dituzte, zentzu komunarekiko zaletasun handirik erakutsi gabe. Bai exiliatuak eta bai idazleak erdi lekuz kanpo aurkitu, eta diren eta ez den mundu edo hizkuntzak asmatzen endredatzen dira.

Atzerriratze moduko desplazamendu batekin konpara daiteke sorkuntza literarioa. Zentzu horretan, gogoangarria da etxetik, hiritik, irlatik eta, bide batez, Eliza ekumenikotik apartatzeko Stephen Dedalusen erabakia. Artista hasiberriak Irlandatik emigratzea deliberatzen du James Joyceren nobelaren amaieran:

Galdetu didazue zer egingo nukeen eta zer ez. Esango dizuet zer egingo dudan eta zer ez dudan egingo. Ez dut ezer egingo jada sinesten ez dudan horren guztiaren alde, berdin zait nire etxea deitzen bada, nire

⁶⁵ *Idem.*

herria deitzen bada edo nire eliza deitzen bada ere. Ahalik eta askatasun eta osotasun handienarekin saiatuko naiz gauzak adierazten, bizitza edo arte formaren batean, neure defentsarako neure buruari uzten dizkiodan arma bakarrak erabiliz: isiltasuna, exilioa eta maltzurtasuna.⁶⁶

Artistaren gaztetako autoportreta: idazlearen derrigorrezko exilioa. Norberaren herritik kanpo bizitzea komeni dela uste du artistak, pentsatzeko eta literatura egiteko.

Goiz edo beranduago faltsua bihur daitekeen erretorika, hala ere.

* * *

Benetako exiliatu batek, Roberto Bolañok, 2000n, Austrian, europar doctorez betetako saloian, “Literatura y exilio” gaiaz mintzatu behar izan zuen. Eta esan zuen:

Ez dut exilioan sinesten, batez ere hitz hori literatura hitzarekin lotuta datorrenean.⁶⁷

Ez zuela sinesten exilioaren erretolikan. Idazlearen aberria bere liburute-gia dela: desterrura doanean, idazleak abandonatu behar duena, hain zuzen, eta pazientzia itzelarekin berreraiki beharko duena.

15. Eta kitto

Exiliatuen minaz baino harantzago, eta plutarkismo kosmopolitaz bestaldean, Edward Saidek hausnarketa sozialerako ikertoki moduan planteatu du exilioa, baina are gehiago problematizatzen du gaia Theodor Adornoren *Minima Moralia* aitatuz. Bizimodu kaltetu eta minduen inguruko gogoeten artean, Adorno exiliatuak planteatzen du ez dela etxerik behar. Printzipio morala dela etxean ez sentitzea inon, etxean egon arren. Eta are gehiago:

Horri, gaur egun gehitu beharko genioke: printzipio morala da ez bihurtzea norbera norbere etxe.⁶⁸

Etxe hitzak itxi hitzaren antza hartzen du.

⁶⁶ Joyce, James. 1916. *A Portrait of the Artist as a Young Man*.

⁶⁷ Bolaño, Roberto. 2019. *A la intemperie*. Madril: Alfaguara.

⁶⁸ Adorno, Theodor W. *Minima moralia: reflexiones sobre la vida dañada*. Argitalpenaren urte eta lekurik gabe, edizio pirata, 45.

* * *

Etxea enblematikoa da Paulinorentzat. Ez ixten delako. Baizik eta hortik zabaltzen delako mundu guztia. Lortu zuen azkenean eraikitzea bere etxea...

Ikusten duzu goizean
argia hasten denian...⁶⁹

Paulinoren semeek ez dute horrela ikusten. Ez dute etxerik, aitarenean behintzat ez dute egokierarik, etxe horretako ate-leihoak ez zaizkie mundura zabaltzen.

* * *

Sustraien sinboloa ere derrigorrezkoa da. Metafora izan arren, sustraiok. Bizkar gainean eramaten dira batzuetan, arramak balira bezala, hegala di-
rela ere pentsatuz batzuetan, sustraiak lepoan hartu eta basotik alde egiten jolasten.

Hannah Arendtek gizalegeaz edo giza kondizioaz⁷⁰ esaten zuen jendearen gogoa erroak dituen lurraldeari lotuta dagoela. Memoria eta izaera transmititzen zaio bakoitzari bere lekuan. Bertakoa, sentimentalki eta arrazionalki joaten da osatzen. Eta pertinentzia erradikal hori normala da. Etxean edo etxean bezala sentiarazten gaituen kulturarekiko atxikimendua ia berezkoa da eta agian derrigorrezkoa. Sorterriko hizkuntza kentzen bazaio inori, beste hizkuntza batean eginarazten bazaio, elebidun makala bihurtuko da “berbartu” hori. Desterratua bezalakoa da des-hizkuntzaratua.

Lekuan lekuko lurean eta hizkuntzan sustraitu beharraz mintzo zen Simone Weil ere sustraiez eta sustraitzeaz utzi zuen idazlan ederrean:

Sustraiak izatea da, agian, giza arimaren beharrik garrantzitsuena eta ahaztuena. Definitzen zailenetako bat da. Gizakiak sustraiak ditu iragane-
neko altxor batzuk eta etorkizuneko aurreikuspen batzuk gordetzen dituen komunitate baten existentzian parte hartzen duelako benetan, era bizian eta berez.⁷¹

⁶⁹ Elizanburu, Jean-Baptiste. ≈ 1866. “Nere Etxea”.

⁷⁰ Arendt, Hannah. 1958. *The Human Condition*. Chicago: The Chicago University Press.

⁷¹ [L'enracinement est peut-être le besoin le plus important et le plus méconnu de l'âme humaine. C'est un des plus difficiles à définir. Un être humain a une racine par sa participation réelle, active et naturelle à l'existence d'une collectivité qui conserve vivants certains trésors du

Sustraitzearena poesia bezala kontatzen du Weilek, edo antropologia orokor bezala. Weilen benetako kezka deserrotzea da (*le déracinement*), bertakoen deserrotzea kolonietan, obreroena bazter-auzo industrialetan...

* * *

Nor sustrai daiteke gaur egun hiri asfaltatu batean? Zementuaren gainera, nor sentitzen da ba bertako eta seguru? Nor ez da sentitzen modu batera edo bestera bere sorterritik kanporatuta? Celso Emilio Ferreirok azaldu zuen *Viaxe ao país dos ananos* poemaren 18. atalean:

Ehundaka pasatzen dira autoak.
infernua dira etorbideak.
Tristeza da atzerritarra izatea
baina tristeago da atzerritarra izan ez
eta hain arrotz sentitzea norberaren herrian.⁷²

Poema luze batean aurreikusi zuen sentsazio hori T.S. Eliotek, hiriek eta herri txiki askok basamortu ezaugarriak hartuko zituztela: “Lur eremua” (*The Waste Land*, 1922). Eta Rupert Ordorikak kantatzen du aspalditik hona:

Mundu guzia arrotza da ene herrian.

“Benetako bizitza” ez dago supermerkatu honetan, esango zukeen Etiopiarra joan zen beste hark. Non dago ba? Benetako basamortuan? Mugikorraren lainoan? Exilioa, migrazioa, desertia egoera eta baldintza unibertsalak bihurtu direla ematen du.

Zireneko Aristipo edo Giambattista Vico, Erich Auerbachek edo Edward Said leitu ditut apotegma baten bila, exilioaz. Hauxe aurkitu dut:

Herrialde bakar bat maite duena aski inozoa da. Munduan zehar bere etxean bezala dabilenak zerbait ikasi du, baina gutxi. Benetan jakintsua da konturatzen dena arrotzak direla leku guztiak, baita norberaren herria ere.

Zarandona irakurtzetik datoz exilioari buruzko gogoetok guztiak, zuzen edo zeharka. Gerraosteko familia baten herriz besteratzeko literatura bikain bihurtzen duen eleberria. Eta uste dut komeni dela, komentarioa amaitzeko, gonbidatzea Josu Landaren liburua bera irakurtzera. Gazteleraz, zuzenean, egilearen sentikortasun bereziak, bere pentsamendu zorrotz eta analitikoak

passé et certains pressentiments d'avenir.] Weil, Simone. 1949. *L'enracinement: prélude à une déclaration des devoirs envers l'être humain*. Simone Weil 1943an hil zen.

⁷² [Pasan os automóviles a centos. / As ruas son un inferno. / É triste ser extranxeiro / Pro é mais triste non sêlo / e sentirse estrano nos propios eidos.]

eta bere prosaren kalitate miresgarriak baduelako gura-haina iruzkindu ezinetik eta itzuli ezinetik.

Bibliografia nagusia

- GUILLÉN, Claudio. 1995. *El sol de los desterrados: literatura y exilio*. Bartzelona: Quaderns Crema.
- FERREIRO, Celso Emilio. 1970. *Viaxe ao país dos ananos*. Bartzelona: El bardo.
- IMAZ, Eugenio. 1940. "Discurso in partibus". *España peregrina* 1: 15-18.
- JUARISTI, Jon. 2002. *La tribu atribulada: el nacionalismo vasco explicado a mi padre*. Madril: Planeta.
- JUARISTI, Jon. 1997. *El bucle melancólico: historias de nacionalistas vascos*. Madril: Planeta.
- LANDA, Josu. 1990. *Zarandona*. Mexiko: Centro Vasco. 2000n berrargitaratua: *Zarandona*. Tafalla: Txalaparta.
- LANDA, Josu, 2012. *Éticas de crisis: cinismo, epicureísmo, estoicismo*. Guanajuato: Universidad de Guanajuato.
- SAID, Edward W. 2001. *Fuera de lugar*. Bartzelona: Grijalbo.
- SAID, Edward W. 2005. *Reflexiones sobre el exilio*. Madril: Debate.
- ZAMBRANO, María. 1961. "Carta sobre el exilio". *Cuadernos del Congreso por la Libertad de la Cultura* 49: 65-70.